

# **2009-2012 EPEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BALANTZEA ETA EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA**

Gernika-Lumon, 2012an egokitutako txostena.  
Bittor Zarrabeitia Bengoa  
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I

# AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	3
<b>I.- 2009tik 2012rako PLAN ESTRATEGIKOAREN BALANTZEA ETA HAUSNARKETA OROKORRA</b>	
<i>I.1.- ADIERAZLEAK (II. Plan estrategikoaren garapena) .....</i>	6
<i>I.1.1. Pozteko ondorioak .....</i>	12
<i>I.1.2.- Kezkatzeko ondorioak.....</i>	14
<b>II.- BALANTZEA ETA EGOERAREN HAUSNARKETA (HELBURU ESTRATEGIKOKA ETA ESPARRUKA)</b>	
<b>II.1- Lehenengo helburu estrategikoa: EUSKARA ONDORENGOETARATZEA (edierazleak)</b> .....	17
<i>II.1.1.- Familia esparrua – Balorazioa .....</i>	27
<i>II.1.2.- Euskalduntze-alfabetatze esparrua- Balorazioa .....</i>	35
<i>II.1.3.- Irakaskuntza esparrua – Balorazioa .....</i>	39
<b>II.2.- Bigarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ERABILERA (ADIERAZLEAK)</b> .....	45
<i>II.2.1.- Administrazioa – Balorazioa .....</i>	49
<i>II.2.2.- Enpresa mundua – Balorazioa .....</i>	57
<i>II.2.3.- Aisia – Balorazioa .....</i>	61
<i>II.2.4.- Kirola – Balorazioa .....</i>	66
<b>II.3.- Hirugarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ELIKADURA</b> .....	71
<i>II.3.1.- Kulturgintza – Balorazioa .....</i>	73
<i>II.3.2.- Hedabideak – Balorazioa .....</i>	78
<i>II.3.3.- Teknologia berriak-balorazioa .....</i>	81

- I. ERANSKINEAN, 2003-2008 eperako Plan Estrategikoan esparruka burututako ekintzen zerrendak kontsultatu .
- II. ERANSKINEAN, 2009-2012 eperako Plan Estrategikoan esparruka burututako ekintzen zerrendak kontsultatu

## **HITZAURREA (aurrekariak)**

**1.- Legezko aurrekarien arabera**, euskara planak gauzatzeko agindua bete behar izan zen udal erakundeetan eta horri egoki erantzuteko konpromisoa hartu zuen Gernika-Lumoko Udalak. Horien artean, aipagarrienak hurrengo hauek dira:

- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arautzen duena.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoaren erabilera garatzen duena.
- 250/86 Dekretua eta 224/89 Dekretua: herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzekoa (I. plangintzaldia).
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ean onartua, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko proiektua arautzen duena (II., III. eta IV. plangintzaldirako araubidea. Laugarrena da indarrean dagoena 2012ko abenduaren 31ra arte).

**2.- Eusko Legebiltzarrak, 1999ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkuran bi erabakiok hartu zituen:**

*“Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean, (aholku batzorde honetan Kontseiluak ere onartu zuen) burutu eta Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. (1. ebazpena)*

*Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu eta hiri handietako udalei eskatzen die gara dezatela euren hizkuntza normalizatzeko plana, nahiz eta hori bideratzeko plan orokor bat egon. (8. ebazpena). “*

**3.- Hori horrela, Gernika-Lumoko Udalak eskaera ofiziala egin zion Hizkuntza Politikarako Sailordetzari** 2002ko maiatzaren 3an, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenerako aholkularitza eta baliabide (aplikazio informatikoak) eske. Horren ondorioz, eman beharreko hamar urratsak eman genituen lehenengo Plan Estrategikoa eratzeko (datu-bilketa, diagnostikoa, bideragarritasun txostena, Euskara Batzordea dinamizatu,...).

**4.- Horren ildotik, Gernika-Lumoko Udalbatza Osoak, aho batez, 2003-2005 eperako Plan Estrategikoa onartu zuen 2003ko apirilaren 30ean.** Besteak beste, hauxe ebatzi zuen:

“...2).- Plan Estrategiko hori 2003-2005 epean garatzekoa denez, esparru desberdinetan normalizazio-ekintzak urtez-urte burutzeko aurrakusi da aurrekontua onartzea:

- 2003: 183.601 euro (onartua).
- 2004: 252.546 euro (dagokionean aintzat hartzekoa).
- 2005: 261.846 euro (dagokionean aintzat hartzekoa)....”

Plan Estrategiko hori luzatu egin zen 2006, 2007 eta 2008 urteetarako, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak hurrengo plangintzaldirako egin behar zituen hausnarketa eta proposamenei zain.

**5.- 2009-2012 eperako Plan Estrategiko berria onartu zuen Gernika-Lumoko Udalak, aurreko epealdirako finkaturiko konpromisoei eutsiz.** Ebatzikoaren artean, hauxe azpimarragarriena:

*“...2).- Plan Estrategikoa 2003an onartu zenean eta 2007ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuran azken luzapena erabakitzerakoan hartutako konpromisoak berrestea, hau da, Gernika-Lumoko Udalak bere aurrekontu osoarekiko euskararen sustapenerako erabiliko duen portzentaia ez da azken urteetan batz bestekoa izan den %2,2tik jaitsiko.”*

Indarrean daukagun Plan Estrategiko hori dugu aztergai txosten honetan, balantzea egin eta, egungo diagnostikotik abiatuta, hurrengo Plan Estrategikoa eratzekeo pistak jorratzeko.


# **I.- 2009-2012KO PLAN ESTRATEGIKOAREN BALANTZEA ETA HAUSNARKETA OROKORRA**

## **Helburu nagusia**

**Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.**

## I.1.- ADIERAZLEAK (Plan estrategikoaren garapena)

### UDALAREN AURREKONTUA ETA EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AURREKONTUA BILAKAERAREN ALDERAKETA



Koadro honetan, udalak bere aurrekontutik euskararen sustapenerako urtez urte erabili izan duen portzentajea agertzen da.

## ERABILITAKO AURREKONTUAK HELBURU BAKOITZEKO (2003 / 2012)

Helburu estrategikoak	Funtsezko esparruak	2003 urtea		2005 urtea		2008 urtea		2010 urtea		2012	
		GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%
1.- Euskara ondorengoetaratzea	Irakaskuntza	64.598	25,14	118.900	26,67	144.709	22,15	148.959	22,88	117.232	19,40
	Euskalduntze Alfabetatze										
	Familia jarraipena										
2.- Euskararen erabilera	Administrazioa	132.863	51,70	223.900	50,21	326.000	49,91	367.480	56,44	376.300	62,26
	Teknologia berriak										
	Enpresa mundua										
	Aisia										
	Kirola										
	Erlijioa (*)										
3.- Euskararen elikadura	Corpus plangintza (*)	59.505	23,16	103.100	23,12	182.500	27,94	134.657	20,68	110.860	18,34
	Liburugintza (*)										
	Publizitatea (*)										
	Kulturgintza										
	Hedabideak										
<b>GUZTIRA HELBURU NAGUSIRAKO</b>		<b>256.966</b> Esparruak 14	100	<b>445.900</b> Esparruak 14	100	<b>653.209</b> Esparruak 14	100	<b>651.096</b> Esparruak 10	100	<b>604.392</b> Esparruak 10	100

- Berdez azpimarratuta dago aurrekontu igoera nabarmena izan duen atala, 2. helburu estrategikoarena (euskararen erabilera)
- 2011 urtearekin alderatuta, 2012ko aurrekontua gutxitu den arren, 2. helburu estrategikorako (euskararen erabilera) kopuruak gora egin du.
- (\*) marka duten esparruek beste tratamendu bat izan dute 2009-2012 epealdian. Guztira 10 esparru landu dira ("erlijioa", "aisia"-rekin lotu da; "Corpusa" eta "Liburugintza", "Kulturgintzan" kokatu dira; "publizitatea" "hedabideen" esparrura pasatu da)

## ERABILITAKO AURREKONTUAK ESPARRUKA (2003 / 2012)

FUNTSEZKO ESPARRUAK		2003 urtea		2005 urtea		2008 urtea		2010		2011		2012	
		KOP.	%	KOP.	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%
1. helburu estrat. Ondorengoetaratzea	Familia jarraipena	16.828	6,55	29.000	6,50	19.200	2,94	10.114	1,55	12.070	1,90	1.500	0,25
	Euskalduntze-Alfabet	6.010	2,34	33.000	7,40	46.509	7,12	61.132	9,39	48.575	7,66	45.132	7,47
	Irakaskuntza	41.760	16,25	56.900	12,76	79.000	12,09	77.713	11,94	79.023	12,46	70.600	11,68
2. helburu estrat. Euskararen erabilera	Administrazioa	95.000	36,97	97.000	21,76	198.000	30,31	220.000	33,79	220.000	34,67	220.000	36,40
	Enpresa mundua	15.025	5,84	19.300	4,33	31.500	4,8	68.514	10,52	63.477	10,00	65.000	10,75
	Aisia (1)	22.838	8,89	90.100	20,20	88.500	13,55	77.421 (1)	11,89	92.282 (1)	14,54	90.000 (1)	14,89
	Erljioa	0	0	2.000	0,45	1.000	0,16						
	Kirola	0	0	8.500	1,91	7.000	1,07	1.545	0,24	0	0	1.300	0,22
3. helburu estrat. Euskararen elikadura	Corpus plangintza	15.626	6,08	8.000	1,80	17.000	2,60	10.034 (2)	1,54	17.357 (2)	2,74	13.760 (2)	2,28
	Kulturgintza (2)	7.813	3,04	23.000	5,16	31.500	4,82						
	Liburugintza	11.419	4,44	13.500	3,02	24.500	3,75						
	Publizitatea	901	0,35	1.800	0,40	1.500	0,24	108.500 (3)	16,66	100.188 (3)	15,79	95.400 (3)	15,78
	Komunikabideak (3)	12.621	4,92	56.800	12,74	107.000	16,39						
	Teknologia berriak	11.125	4,33	7.000	1,57	1.000	0,16	16.123	2,48	1.500	0,24	1.700	0,28
<b>EBPN-ren helburu nagusirako</b>		<b>256.966</b>	<b>100</b>	<b>445.900</b>	<b>100</b>	<b>653.209</b>	<b>100</b>	<b>651.096</b>	<b>100</b>	<b>634.472</b>	<b>100</b>	<b>604.392</b>	<b>100</b>

- Urdinez, murrizketa izan duten esparruak.
- Berdez, igoera izan duten esparruak.



## EKINTZA KOPURUAK HELBURU BAKOITZEKO

PLAN ESTRATEGIKOAK 2003-2008 eta 2009-2012 HELBURU NAGUSIAK	GARATUTAKO EKINTZA KOPURUA URTETIK URTERA (PROPOSATUTAKOAK ETA BURUTUTAKOAK)											
	2003		2004		2007		2009		2010		2011	
	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE
1.- Euskara ondorengoetaratzea	21	20	29	28	26	24	31	27	30	27	30	28
2.- Euskararen erabilera	43	42	58	57	49	42	30	24	28	26	30	24
3.- Euskararen elikadura	19	15	27	23	25	19	27	22	27	25	28	23
<b>GUZTIRA</b>	<b>70</b>	<b>72</b> <b>% 101</b>	<b>112</b>	<b>106</b> <b>%95</b>	<b>100</b>	<b>84</b> <b>%84</b>	<b>88</b>	<b>73</b> <b>%83</b>	<b>85</b>	<b>78</b> <b>%92</b>	<b>88</b>	<b>75</b> <b>%85</b>
Kudeaketa Planetan burutu bako ekintzak (atzeratuak eta indargabetuak)	7 atzerat		6 atzerat		4 ezabat 2 atzerat		2 ezabat 4 atzerat		3 ezabat 4 atzerat		8 atzerat 5 atzerat	

prop. → proposamena; bete. → betetze-maila

- Kontuan hartzekoa: 2009-2012 epealdian 10 esparru landu dira, baina Plan Estrategikoan ez dira aintzat hartu Administrazioako ekintzak, aparte landu direlako Erabilera Planaren bitartez. Beraz, konparaketa egiterakoan nabarmentzen da ekintza kopurua murriztu dela 2009-2012 epealdian, baina betetze-maila bere horretan mantentzen da (salbuespena 2003 urtekoa).

- I. ERANSKINEAN, 2003-2008 eperako Plan Estrategikoan esparruka burututako ekintzen zerrendak kontsultatu .
- II. ERANSKINEAN, 2009-2012 eperako Plan Estrategikoan esparruka burututako ekintzen zerrendak kontsultatu

## UDALERRIETAN HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA (KONTSEILUAREN IKERKETAK-2006 eta 2010)

Kontseiluak sustaturik, 2006an hasi zen udaleko hizkuntza politikaren neurketa burutzen eta 10.000 biztanletik gorako 66 udalerritan gauzatu zen. 2010ean izan zen hurrengo neurketa. Jarraian, urte bi horietako rankingak daude eta bilakaerari erreparatzeko aukera izango dugu.

### 2006ko NEURKETEAK

	HERRIA	NOTA	KALIFIKAZIOA	EZAGUTZA TASA
1	AZPEITIA	8,8512	OSO ONGI	94,8
2	LEKEITIO	8,8181	OSO ONGI	96,1
3	OÑATI	8,575	OSO ONGI	90,1
4	BERMEO	8,558	OSO ONGI	90,6
5	BERGARA	8,4963	OSO ONGI	84,4
6	ONDARROA	8,4199	ONGI	98
7	TOLOSA	8,2138	ONGI	85,3
8	BEASAIN	8,2003	ONGI	77
9	ORIO	7,8612	ONGI	92,4
10	<b>GERNIKA-LUMO</b>	<b>7,5016</b>	<b>ONGI</b>	<b>86,6</b>
11	ARRASATE	7,4121	ONGI	73,6
12	ELGOIBAR	7,2594	ONGI	73,8
13	SORALUZE	7,1674	ONGI	76,7
14	ZARAUTZ	7,1001	ONGI	86,4
15	MUNGIA	6,7969	NAHIKOA	76,2
16	LESAKA	6,6508	NAHIKOA	93,3
17	AZKOITIA	6,5213	NAHIKOA	90,7
18	HONDARRIBIA	6,4648	NAHIKOA	78,9
19	EIBAR	6,4169	NAHIKOA	78,3
20	ORDIZIA	6,3965	NAHIKOA	78,3

### 2010eko NEURKETA

	HERRIA	NOTA	KALIFIKAZIOA	EZAGUTZA TASA
1	BERMEO	9,3209	OSO ONGI	90,6
2	ORIO	8,7745	OSO ONGI	92,4
3	AZPEITIA	8,6925	OSO ONGI	94,8
4	LEKEITIO	8,6387	OSO ONGI	96,1
5	OÑATI	8,413	OSO ONGI	90,1
6	BEASAIN	8,2566	OSO ONGI	77
7	ZARAUTZ	8,2457	OSO ONGI	86,4
8	ONDARROA	8,1692	OSO ONGI	98
9	ARRASATE	8,0219	OSO ONGI	73,6
10	AZKOITIA	8,0139	OSO ONGI	90,7
11	BERGARA	7,8981	ONGI	84,4
12	<b>GERNIKA-LUMO</b>	<b>7,8307</b>	<b>ONGI</b>	<b>86,6</b>
13	HERNANI	7,5524	ONGI	74
14	TOLOSA	7,4127	ONGI	85,3
15	HONDARRIBIA	7,2073	ONGI	78,9
16	SORALUZE	7,1732	ONGI	76,7
17	ELGOIBAR	6,9456	NAHIKO	73,8
18	LESAKA	6,8786	NAHIKO	93,3
19	DONOSTIA	6,4666	NAHIKO	63
20	PASAIA	6,3909	NAHIKO	56,9

Rankingean berdintsu dago Gernika-Lumoko Udala, 2006koa eta 2010ekoa alderatuta. Kalifikazioa: ONGI.

## 2006ko parametroen balorazioa

Neurtutako arloak (*)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Guztira
<b>Gernika-Lumoko udalari egindako neurketa</b>	0,83	0,29	1,66	0,47	0,44	0,65	0,83	0,12	0,42	0,42	6,125
(*) <u>Neurtutako arloak:</u> 1.- Erabaki orokorra 2.- Hizkuntza paisaia 3.- Udal langileak 4.- Udalaren komunikazioa	5.- Beste zerbit. Eta azpikontratak 6.- Udalaren kultur ekintzak 7.- Hezkuntza 0-3 urte						8.- Euskalgintza 9.- Merkataritzaa eta lan mundua 10.- Kirola eta aisia				

## 2006-2010eko azterketa konparatiboa:

**1.- Erabaki orokorrak:** ez da aldaketarik eman. Aurrekontua %2tik gorakoa da.

**2.- Hizkuntza paisaia:** euskara lehenesteko erabakia hartuta badago eta 2006arekin alderatuz aurrera egin bada ere, Obra txartelak erdara hutsez behatu dira, 2006an bezala.

**3.- Udal langileak:** atal honetan aurrera egin da, langile kontratatu berri guztiak euskaldunak izateko erabakia hartu baita; harrera lanpostuetako langileek euskararaz artatu dute guztiek, 2006an bezala, baina udaltzainen artean atzera egin da (2006zan 6rtik 6k erantzun zuen euskaraz eta 2010, oster, 2k erdaraz erantzun dute.

**4.- Udalaren komunikazioa:** euskara lehenesteko erabakia hartuta dago, baina ez da sistematikoki betetzen, 2006an gertatu bezala (bandoak, isun-inprimakia, webgunea, etxera bidalitako zergak,...). Kasurik okerrera: Udal aldizkarian erdara nagusi.

**5.- Beste zerbitzu batzuk:** ez da aldaketa esanguratsurik izan. Azpikontratazioetan euskara lehenesteko erabakia hartuta dago, baina erdara eta euskara orekaz erabiltzen dira.

**6.- Udalaren kultur ekintzak:** aurrera egin da.

**7.-Hezkuntza 0-3 urte:** berdin. Euskara hutsezko eskaintza.

**8.- Euskalgintza:** aurrera egin da. Beka sistema orokorrean eskaintzen da, ez talde bereziei soilik.

**9.- Merkataritza eta lan mundua:** 2006an bezala, laguntza teknikoa mantentzen da.

**10.- Kirola eta aisia:** ez da aldaketarik (kirola euskaraz eskaintzen da eta haurrentzako aisialdia euskara hutsezkoa da).

## I.1.1- Pozteko ondorioak:

1.- **Planak ardatz** hartuta epe luzerako ekimenak abian jartzeko aukera eman digu, Legealdi bakoitzean kargu politikoak aldatu arren.

2.- **Aurrekontuari dagokionean izandako bilakaera** oso positiboa izan da. I. Plan Estrategikoan (2003-2008) hiru urterako finkatu zen konpromiso ekonomikoa (begira ... orrian hitzaurreko 4. puntua) eta gainditu egin zen; gero, 2009-2012 epealdiko II. Plan Estrategikoan konpromiso ekonomikoa beste modu batera arautu zen: udalaren aurrekontuko %2,2a gutxienez erabiltzea euskararen sustapenerako. Jokabide horri eutsi zaio eta erabili diren kopuruak gainditu egin dute araua. Hara hemen:

<b>URTEAK</b>	<b>Plan Estrategikoaren helb. nagusirako aurrekontua (Itzultzailearena eta “beste partida batzuk” kenduta)</b>	<b>Udalaren aurrekontuarekiko %</b>
1999	77.987	0,82
2003	256.966	2,18
2004	406.748	2,73
2005	445.900	2,39
2006	508.101	1,84
2007	540.111	2,17
2008	653.209	3,02
2009	723.943	3,08
2010	651.096	3,32
2011	634.472	3,16
2012	604.392	3,09

3.- **II. Plan Estrategikoaren betetze-mailari bagagozkio, esan behar %92a bete egin dela** (proposatutakoa ekintza 140 eta bete direnak 129). Beste kontu bat da lortu diren emaitzak eta ekintzekin asmatu dugun. Hori, esparruka egingo den azterketan landuko dugu, txosten honetako bigarren atalean.

4.- **Euskara Batzordearen dinamika egonkortu egin da, eragileen parte hartzea areagotuz.** Batz-besteko 2/3 batzar egiten dira urtero (gai nagusiak: aurrekontuaren aurreikuspena eta egokipena; urte baterako edo epe luzeagorako lehentasunak markatzea) eta esparrukako bilguneak ere sendotu egin dira:

4.1.- Euskara Batzordearen lan emankorra **Plana diseinatze**ko orduan eta ekarpenak egiterakoan.

4.2.- **Zenbait eragilerekin hasitako lanari jarraipena** eman ahal izan zaio (Busturialdean euskaraz bizi elkarteak, Soziolinguistika Klusterra, Euskaltzaindia, enpresak, elkarteak, mekatariak).

4.3.- **Beste eragile batzuk erakarri** dira udalerriko esparrura, euskara sustatzeari begirako lanerako: Kontseilua, Ziurtagiriaren elkarteak, Hitza, Ahize-AEK.

4.4.- Euskara Batzordearen magalean, lan-mahai edo **foro bereziak** “egonkortu / berriak sortu / berpiztu” dira:

- Irakaskuntza esparrukoekin: Udal Eskola Kontseilua (egonkortu)

- Euskalduntze-alfabetatze esparrukoekin: Berbalaguneko Talde Eragilea (egonkortu)
- Administrazioako Erabilera Planarekin inplikaturakoekin: Talde Eragilea (etena izan ondoren, berpiztu)
- Etorkin helduei buruzkoa hausnarketarako lan-mahaia (sortu).
- Euskalgintzaren lan-mahaia (egonkortu).

**5.- Beste udalerrietako Euskara Zerbitzuekin elkarlana sendotu egin da.** 2001ean eratu zen Euskara Zerbitzuen bilgunea, Alkarbide. Erakunde horretan osatu ziren lan-mahai desberdinetatik, D ereduko udalerriena (euskaldungoa %70etik gorakoa duten udalerriak) 2002an osatu zen, UEMA barru, eta 2004tik geuri dagokigu lan-mahai horretako koordinazioa. Horrek guztiak, esperientzia trukaketa ahalbidetu du eta goi erakundeekin elkarlana bideratzeko aukerak areagotu. Adibideak: BizkayTIK erakundearekiko kezkak (Aldundiak udal erakundeetarako duen informatika, Kirol Federazioen arloa lantzeko hausnarketa eta proposamenak.

**6.- Landutako esparru batzuetako jardunbidea Plan Estrategikoarekin uztartu eta bide berean jartzea lortu da:**

- Irakaskuntza zentroetako normalizazio plangintzak eta EBPN, Udal Eskola Kontseilua bilgune eta Berritzegunearekin elkarlanean.
- Lan mundua eta aisiaren esparruetan mikroplanak eta enpresetako planak abian daude.
- Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitatearekin elkarlanerako bideak jorratu dira eta Inmigratorako teknikariaren parte hartzea areagotzu, Inmigratio Plana eta Euskara Plana uztartuz asmoz.
- Gazte Planeko foroetan parte hartu zen bere sasoian eta Euskara Zerbitzuak egindako ekarpenekin, hizkuntza irizpideekiko jokabidea egonkortu egin da.
- Kirol Erakundearekiko harremanak estuak dira, Alkarbideko kirol lan-mahaia bitarteko eta kirol elkarteekin ditugun hitzarmenei jarraipena egiteko.
- Kultur Etxearekin elkarlana, euskararen tratamendua programazio orokorrean/arruntean/komertzialean euskararen isla izan dadin.

**7.- 2009-2012 epealdian aurrekonturik gehien gastatu den helburu estrategikoa “euskararen erabilera”-rena** izan da eta gure udalerriaren hiztunen tipologia erreparatuta (euskaldunak %67,87 + ia euskaldunak %17,87) , lehentasunezkoa horixe da. Kontuan hartzekoa da helburu estrategiko honetan lantzen den esparruetako bat “administrazioa” dela eta hor daukagula kokatuta Euskara Zerbitzua sendotzeko konpromisoarena (giza-baliabideak), beste helburu estrategikoetako esparruetan ere ekiteko ahalmena areagotzen duena. Hargatik, euskara sailaren transbertsalitatea aldarrikatzen dugun neurri berean, “administrazioa”-ren esparrua ere transbertsala da beste esparruekiko.

**8.- Ekintza kopuruei dagokienean,** hiru helburu estrategikoen arteko alderaketa eginez gero, orekatu egin da ekintza kopurua. Horren arrazoia hauxe da: Administrazioako esparrua Plan Estrategikotik kanpo geratu da 2009-2012 eta, ondorioz, esparru horretako ekintzak ez dira kontabilizatzen, bere Erabilera Plan propioa duelako.

**9.- Hizkuntza politikari buruz Kontseiluak egindako neurketak nahiko positiboak izan dira.** Egin diren neurketetan Gernika-Lumoko Udala mantendu egin da 66 udalerr handietako rankingean (2006an 10garren, 7,50 punturekin, eta 2010ean 12garren 7,83 punturekin; ONGI kalifikazioa). Lau urtetan aurrerapauso apala egin da: langileen atala, kultur eskaintza, euskalgintzari emandako laguntzak.

## **I.1.2.- Kezkatzeko ondorioak:**

**1.- Euskara Zerbitzuaren giza baliabideei dagokienean, atzerapausua** izan da 2009-2012 epealdian (HNT-II langilearen langilearen hutsunea bete barik dago). Udalaren beste saila batzuetako langileriaren egoerari erreparatuta, Euskara Zerbitzuko langileriarena kaxkarragoa da: bost langiletik bat bakarra da finkoa, gainerakoak mugabako lan-hitzarmendunak.

LANGILEAK	2003		2008		2012	
	finkoa	temporala	finkoa	temporala	finkoa	Mugabako lan hitzarmendunak
Zerbitzu burua HNT 1 (Hizk. Normalizaz. Tekn. 1)	1		1		1	
HNT 2 (Hizk. Normalizaz. Tekn. 2)		1		1		0 (2)
Trebatzailea		1		1		1
Itzultzailea		1		1		1
Euskara dinamizatzailea				1 (1)		1
<b>LANGILEAK GUZTIRA</b>	<b>4</b>		<b>5</b>		<b>5</b>	

- *Trebatzaileak, itzulpen lanak ere betetzen ditu (trebatzaile-itzultzaile gisa dago kontratatuta).*
- (1) *Euskara dinamizatzaile lanpostua, aldi baterakoa, udalak berak kontratatu behar izateko arrazoia: goi erakundeetatik diru laguntzak jasotzeko hitzarmengintza kanpainarako gastuaren %50a udalak zuzenean egin behar zuela eta, dinamizatzaile bat kontratatu beharra izan zen lanaldi erdirako.*
- (2) *Hizkuntza normalizaziorako Teknikaria II lanpostuko langilea 2008an liberatu zen sindikaturako eta hutsune hori ez da bete.*

**3.- Administrazioko Erabilera Planean gora-behera asko izan dira,** politikoen aldetik inplikazio falta batzuetan eta, beste batzuetan, Euskara Zerbitzuak daukan autonomia edo “aginte eza” administrazio barrukoari begira, nahiz eta udal ordenantza hor egon, Erabilera Plana onartuta, erabilerarako irizpideak finkaturik, .... Gaineratu behar, Erabilera Planerako Talde Eragilearen dinamika eten egin dela, nahiz eta 2012an berpiztu den.

**4.- Udal administrazioaren menpeko erakunde autonomoekiko dinamika hautsi egin da.** Aurreko puntuan esandakoaren ondorioa dugu hau; adibidez, Musika Eskolan 2003-2008 epealdian Erabilera Plana jarri zen martxan eta jarraipenari eta inplementazioari dagokionean eredu izen zena, ezin izan da beste erakundeetara hedatu (Lanbide Hastapenerako zentroa, Kultur Exea bera, Kirol Erakundea –nahiz eta azken honetan beharizan handirik izan ez-).

**5.- Kultura Plana eratzeke dago.** Horrek, zailago egiten du Euskararen Plan Estrategikoarekiko uztarketa, irizpideak finkatzerakoan zerbitzu/arduradun bakoitzarekin (Musika Eskola, liburutegia, programazioa, Gaztelekua, Informazio Bulegoa) landu beharra ekarri duelako. Aipatu beharra dago, Kultur Etxeko Estatutu berriak eratu zirenetik zain egon garela aurreikusitako partaidetzarako bilguneak (elkarleen Aholku Batzordea), teknikarien Batzordea (zerbitzu desberdinetako teknikarien bilgunea) eta abarrak noiz eratuko, guretzat hizkuntza politika txertatzeko bide baliagarriak.

**6.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzan arduradun aldaketa asko eta aurrera begirako argitasun gutxi.** Hizkuntza politikaren jarraibideak argitu barik daude indarrean dagoen plangintzaldia 2012ko abenduan amaitzen denean. Azarorako egongo ei da Euskararen Aholku Batzordearen txostena (marko berria), gero ESEP (Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana, lehengo EBPN) eratu beharko da, ostean udalerrietakoa horretara egokitu,... ez du astirik emango. Beraz, indarrean dagoen EBPN-ren arabera jokatu beharko dugu Gernika-Lumoko Plan Estrategiko berria eratzeke orduan.

**7.- Gernika-Lumoko Udalaren hizkuntza politikak baditu akats batzuk.** Kontseiluak 2006 eta 2010 urteetako azterketa konparatiboa egin du eta honakoak azpimarratu dira kezkatzekoak:

- **Hizkuntza paisaia:** Obra txartelak erdara hutsez behatu dira, 2006an bezala.
- **Udal langileak:** atal honetan aurrera egin da, langile kontratu berri guztiak euskaldunak izateko erabakia hartu baita, udaltzainen artean atzera egin da (2006an 6tik 6k erantzun zuen euskaraz eta 2010ean, ostera, 2k erdaraz erantzun dute).
- **Udalaren komunikazioa.** Kasurik okerrenea: Udal aldizkarian erdara nagusi.
- **Beste zerbitzu batzuk:** ez da aldaketa esanguratsurik izan. Azpikontratazioetan euskara lehenesteko erabakia hartuta dago, baina erdara eta euskara orekaz erabiltzen dira.

**8.- Etorri berrien eragina areagotu egin da** eta jaiotza tasa ere eurei esker igo da, baina euskararen mundura ez ditugu berez erakarriko, sentimenduz ez behintzat. Erakartzeko modu bakarra: euskararen beharra eta prestigioa sentiaraztea da, guk geuk, euskaldungoak erabilpenaren bidez erakutsi ahal dieguna.


## **II.- BALANTZEA ETA EGOERAREN HAUSNARKETA (HELBURU ESTRATEGIKOKA ETA LAN-ESPARRUKA)**



## II.1- Lehenengo helburu estrategikoa: EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

### ADIERAZLEAK (egungo biztanleria)

#### Gernika-Lumoko biztanleriaren datu orokorrak



## Atzerriko biztanleriaren bilakaera eskualdean, 2010-2012

2011ko URTARRILAREN 1ean				2012ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Aldaketa
ARRATZU	393	8	2%	392	9	2,2%	+1
BUSTURIA	1.795	62	3,4%	1.760	53	3%	-9
EA	918	30	3,2%	906	38	4,1%	+8
ELANTXOBE	425	23	5,4%	402	5	1,2%	-18
ERRIGOITI	557	20	3,5%	540	14	2,5%	-6
FORUA	997	56	5,6%	977	57	5,8%	+1
ARTEAGA	898	45	5%	917	55	5,9%	+10
<b>GERNIKA</b>	<b>16.483</b>	<b>1.505</b>	<b>9,1%</b>	<b>16.858</b>	<b>1.718</b>	<b>10%</b>	<b>+213</b>
IBARRANGELU	642	14	2,1%	645	9	1,3%	-5
KORTEZUBI	432	12	2,7%	426	10	2,3%	-2
MENDATA	386	6	1,5%	385	5	1,2%	-1
MORGA	413	8	1,9%	407	9	2,2%	+1
MUNDAKA	1.948	102	5,2%	1.960	113	5,7%	+11
MURUETA	309	11	3,5%	303	8	2,6%	-3
MUXIKA	1.493	50	3,3%	1.481	46	3,1%	-4
NABARNIZ	236	5	2,1%	227	5	2,2%	-
SUKARRIETA	362	18	4,9%	365	21	5,7%	+3
<b>GUZTIRA</b>	<b>28.687</b>	<b>1.975</b>	<b>6,8%</b>	<b>28.951</b>	<b>2.175</b>	<b>7,5%</b>	<b>+200</b>


- 1) Busturialdeko Mankomunitateko udalerrietan dauden atzerritar guztien **%79a biltzen da Gernika-Lumon.**
- 2) 2005 urtean 802 etorri berriak (%4,9) eta 2012an 1.718 (%10). Beraz, **bikoiztu egin da etorri berrien kopurua.**
- 3) **2011ko atzerritarren hazkundera berezia izan da Gernika-Lumon**, joera orokorraren kontra: 213 izen-emate gehiago. Mankomunitatean dauden beste herrietan, ostera, jaitsi egin da kopurua.
- 4) Atzerriko biztanleen %43,7 Europako Batasunetik kanpotik etorri da eta **%56,3 europar batasunetik etorria da (errumaniarrak 1.062, %86,6a)**. Argentinarrak 101, brasildarrak 94, marrokiarrak 84, bolibiarrak 83 eta saharauiarrak 80.
- 5) **Emakumeak** eskualdeko atzerritar guztien **%54 dira** 2012an; 2008an %48a zen.
- 6) 2012an atzerriko biztanleen **%55,4a 18-39 urte bitartekoa da** (2008an %50a zen) eta %18a adin txikikoa (2008an %16a zen).

**Atzerriko biztanleria Gernika-Lumon.**

NAZIONALITATEA	2011 (01/1)	2012 (01/1)	ALDAKETA
ERRUMANIA	810	938	+128
BRASIL	69	82	+13
ARGENTINA	73	73	-
BOLIVIA	71	65	-6
ALJERIA	30	64	+34
MOLDAVIA	51	50	-1
MAROKO	42	45	+3
PARAGUAI	42	43	+1
TXINA	39	41	+2
PORTUGAL	31	36	+5
UKRANIA	28	36	+8
EKUADOR	33	29	-4
SENEGAL	7	29	+22
AEB	22	25	+3
PERU	9	17	+8
PAKISTAN	12	15	+3
KOLONBIA	13	12	-1
ITALIA	9	12	+3
FRANTZIA	9	10	+1
MEXIKO	11	10	-1
KUBA	10	8	-2
BESTE HERRI	91	78	
<b>OROKORRA</b>	<b>1.505</b>	<b>1.718</b>	<b>+213</b>

## ADIERAZLEAK (euskararen ezagutza eta bilakaera)

**Euskararen ezagutza Gernika-Lumon – bilakaera (1986-2006)** (Iturria: Eustat)




Grafikoari erreparatuta, euskaldungoa igo egin da 1986tik 2006ra bitartean; 1986-1996 tartean 10 puntu gora eta 1996-2006 tartean 3 puntu behera.

Inguruko udalerriekin alderaketa eginik, Gernika-Lumon hobeto mantendu da euskaldungoaren portzentajea.


**Euskaldungoaren bilakaera – udalerrien arteko konparaketa** (Iturria: Eustat)

UDALERRIA	1981	1986	1991	1996	2001	2006	Aldea
Gernika-Lumo	61,1	64,10	66,30	70,90	69,3	67,87	+6,77
Bermeo	73,8	74,6	77,4	78,0	75,7	73,52	-0,28
Mungia	56,1	60,1	59,3	58,8	55,09	55,92	-0,17
<b>EUSK. AUT. ELK.</b>	21,5	24,6	26,3	30,9	32,31	37,50	+16,00




Grafiko hau hurrengo orrialdeko grafiko batekin erkatu behar da, zeren gauza bat da portzentajeak eta beste bat biztanleria osoan adin-talde bakoitzak daukan pisua. Adinaren arabera euskaldungoaren banaketa ikusita, adin-talderik euskaldunenak haurrena eta gazteena dira, baina euskaldun gehien kokatzen den adin tarte 20-54 urte bitarteko multzoa da eta berau erabilera aldetik apalagoa da.

**Biztanleriaren bilakaera adin-taldeka Gernika-Lumon**



- Biztanlerian helduen eta adinekoen pisua areagotzen joan da. Beraz, biztanleria zahartzen ari da.
- Euskaldungoaren gehiengoa 20-54 urte bitarteko biztanleen multzoan dago.
- Aurreko orrialdeko grafikoan agertzen denez, portzentajetan gazteak dira euskaldunenak gaur egun, hurrekin batera, baina ez dezagun engainatu gure burua, biztanle kopuruei erreparatuta gazte eta haurren pisua biztanleriak gutxitu egin da eta (1981ean 0-19 urte bitartekoak 5.124 biztanle ziren eta 2011n 2.905 biztanle).
- Erdaldungoaren olatua 1981ean 5-45 urte bitartean kokatzen zen eta 2011ko datuen arabera, 35-69 urte bitartean. Beraz, erdaldungoa zahartzen ari da.

**Euskaldunen bilakaera 1981-2001, adinaren arabera, Gernika-Lumon**



### Udalerrian elebidunen kokapena (2001: Eustat)

AUZOAK	ELEBIDUNAK		ELEB. HARTZ.		ERDALDUNA	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Lumo	718	75	84	8	166	17
Bizkaia kalea	959	70	191	18	200	12
S. Roke/Don Tello	909	79	121	9	132	12
Alde Zaharra	883	80	117	10	108	10
Sindik/Ospitalea	862	70	161	15	194	15
Lurgorri-Hilerria	1239	62	305	17	480	21
Erreterria	1420	62	312	15	547	23
Poligono-Calzada	1362	67	309	18	342	15
Txorraburu	1744	73	320	14	334	13
	<b>10096</b>	<b>69,3</b>	<b>1920</b>	<b>17,3</b>	<b>2503</b>	<b>13,4</b>


Geografikoki, 2001eko datuen arabera, nahiko orekatua zen hiztunen tipologiaren arabera biztanleriaren banaketa Gernika-Lumon, elebidunak toki guztietan zirelako nagusi eta %60tik gorako portzentajea guztietan. Baina hurrengoak azpimarratzea merezi du:

- **(\*) Elebidun portzentajerik altuenak** San Roke/Don Tello eta Alde Zaharra auzokoak genituen (%80 +-), nahiz eta kopururik gehien Txorraburun, Calzada-Poligonoan eta Erreterrian izan.
- **(\*) Elebidun portzentajerik baxuenak** dituzten auzoak Lurgorri-Hilerria eta Erreterria genituen 2001ean, nahiz eta kopuruz gehien bertan kokatu.
- **(\*) Elebidun hartzaile portzentajerik altuenak**, Lurgorri-Hilerria (305: %17), Poligono-Calzada (309: %18), Erreterria (312: %14) eta Txorraburu (320: %14) inguruetan, kopururik altuenak ere bertan izanik.
- **(\*) Elebidun hartzaile portzentajerik baxuenak**, Lumo, San Roke/Don Tello eta Alde Zaharra inguruetan, elebidun portzentajerik altuenak zituztenak hain zuzen.
- **(\*) Erdaldun-alebakar portzentajerik altuenak**, gauza nabarmena gainera, Erreterrian (547: %23) eta Lurgorri-Hilerrian (480: %21).
- **(\*) Erdaldun-alebakar portzentajerik baxuenak**, Alde Zaharrean (108: %10), Bizkaia kalean (200: %12) eta San Roke/Don Tello (132: %12).

Honako mapa hori, 2012 urterako aldatu egin da, Gernika-Lumo itxuraz asko aldatu delako eta Lurgorri aldera bikote eta familia gazte ugari joan direlako bizitzera eraikin berrietara. Tamalez, Eustatek ez du jaso horrelako daturik egindako azken erroldatze lanetan.


**Gernika-Lumoko euskaldun alfabetatuak -2006:**

Gernika-Lumoko euskaldungoa %67,87 izanik, **gehiengoa, %73,64, alfabetatua da**; 2001eko datuen arabera % 70,2a zen alfabetatua. Beraz, gora egin du 3 puntu.



**Gernika-Lumoko ia euskaldun alfabetatuak - 2006**

Ia euskaldunen portzentajea 2006an %17,38a bazen, haueatik **%50,55a alfabetatua zen**. 2001 urtean, oster, ia-euskaldunak %17,30 eta, haueatik, alfabetatuak %46,50. Gora egin du lau puntu datu honek 2001-2006 urte bitartean.





### **Pozteko ondorioak (ondorengoetaratzea):**

- **Kontuan hartzekoa da Gernika-Lumoko kasuan 1981-1990 bitartean desanexioak izan zirela** eta, beraz, 1981ean inguruko herrietako (Nabarniz, Arratzu, Ajangiz, Foru, Murueta, Kortezubi) biztanle euskaldunak ere aintzat hartuta daudela. 2001eko datuak, ostera, Gernika-Lumoko biztanleenak bakarrik dira; horrek esan gura du Gernika-Lumo bera bakarrik hartu izan bagenu, 1981-2006 tarteko euskaldunen portzentajearen igoera askoz handiagoa izan zitekeela.
- **2006an egindako eroldaren arabera, Gernika-Lumon hamar lagunetik ia zazpi (%67,87 2006an) euskaldunak dira.** Beste hamazortziren bat (%17,87) ia euskaldunak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak; %13,86 erdalduna da. Beraz, 1981etik 2006ra euskaldunen portzentajeak gora egin du 6,77 puntu.
- Ondorioz, bada, **ezagutza nolabait gaztetzen** ari dela azpimarra genezake. Hau da, tradizionalki zaharrek bete duten lekua, gazteenek hartu dute orain. Datozen urteetan, gertutik jarraitu beharko da joera berari eusten zaion konfirmatzeko eta, esan bezala, hurrengan ezagutzaren bilakaerak zertara egingo duen.
- **1986tik 2006ra bitartean erdaldungoa jaitsi egin zen 4 puntu.** Azpimarratzekoa da 2006an udalerrian erroldatutako etorri berriak %6/7 bat ziren arren, urte horietan etorritako erdaldun andana horrek ez zuela erdaldun portzentajea handitu. Horrek esan nahi du, euskaldungoa nolabait mantentzeagatik eta ia euskaldunen kopurua gehitzeagatik oreka mantendu egin dela. Hezkuntza mundua eta euskaltegiak bitarteko euskaraz hezi eta trebatzeko egindako lanaren ondorio ote?
- Inguruko udalerrri batzuekin konparaketa eginez gero, **Gernika-Lumon 1981-2006 bitartean euskaldungoaren goranzko joera (2001-2006 bitartekoa salbuetsita) nabarmenagoa izan da,** Euskal Autonomia elkartearen joerari eutsiz.
- Gernika-Lumon, 1986-2006 urte bitartean, **ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta bereziki gazteena** izan dira; haurrek 10,6 puntuko igoera izan dute eta gazteek 24,7 puntutan hobetu dute hizkuntza gaitasuna tarte berean
- **Helduengan, ezagutzak ez zuen gorabehera handirik izan 1984-2006 urte bitartean.** Egonkor mantendu da eta, gainera, 2006ko datuetan 2 puntu igo da (%64,30). Hori guztia, erdaldungoa helduen esparruan kokatzen doan arren.

### **Kezkatzeko ondorioak (ondorengoetaratzeari):**

- **Ez dugu 2006tik honako datu zehatzik**, Eustat-ek egindako azken erroldetan ez zaiolako lehengo inkesta sistemari jarraitu (heziketa mailako eta euskararen ezagutza eta erabileraren gaineko galderak ez dira egin).
- 1.981etik 2006ra **euskaldunen portzentajeak** gora egin duen arren 6,77 puntu, kontuan hartu behar da 1981-1996 epean gora 10 puntu egin zuela eta **1996tik 2006ra inflexio dagoela, jaitsiera 3,13 puntukoa izanik**. Gaur egun, 2012an, euskaldunen portzentajearen jaitsiera areagotu egingo zen: 2006an 15.981 biztanle ziren Gernika-Lumon eta etorkinak %6,5 bat (1.038 biztanle); 2012an 16.789 biztanle izanik, etorkinak 1.750 inguru dira, %10 bat. Beraz, 2012rako guk egiten dugun euskaldungoaren estimazioa %2 gutxiagokoa da (%65 bat). portzentajea jaitsi egingo zen zerbait, etorkinen kopuruak gora egin duen neurrian, eskolaratutako etorri berrien seme-alaba euskaldunduak salbu.
- **Haurren eta gazteen ezagutzak 1986tik izan zuen bilakaera positiboak, inflexio nabarmena du 1996-2006 epean:** jaitsi egin da tarte horretan 8 puntu haurrena eta 7,3 puntu gazteena. Agian, 2012an jaitsiera hori areagotu egingo zen, etorri berrien azken urteetako andanaren.
- 2001 eta 2006ko erroldetako datuetan, **haurren ezagutza gazteen ezagutzaren azpitik dago**. Etorri berrien seme-alaba txikiak eskolaratuak izan eta gaztarorako euskaldunduak izatearen ondorioa; hezkuntza sistemaren lan nekegarria dago horren atzean.
- **Adinekoen adin-taldea izan da euskararen ezagutzan behera egin duena nabarmen** 1984-2006 urte bitartean. 1996tik 2006ra bitartean gertatu zen 5,7 puntuko jaitsiera hori. Arrazoia (?): 1960-1975 urte bitarteko fenomeno industrialaren ondorioz gure udalerrira etorri eta euskara bereganatu ez dutenak dira adin tarte horretan pilatzen ari direnak urte hauetan.
- Portzentajetan euskaldunenak gazteak diren arren, hurrekin batera, ez dezagun engainatu gure burua. Biztanle kopuruei erreparatuta, **gazteak eta haurrak asko gutxitu dira** (1981ean 0-19 urte bitartekoak 5.124 biztanle ziren eta 2011n 2.905 biztanle) eta euskaldunik **gehien hartzen duen esparrua 20-45 urte bitarteko biztanleria da, erabilera aldetik apala** (%43,3) eta gora egiten ez duena.
- **2001ean elebidunen banaketa udalerrian orekatua bazen, 2012an ez daukagu daturik hori ziurtatzeko**. Nabarmen aldatu da Gernika-Lumoko biztanleriaren banaketa, adinez eta tipologiaz, Lurgorri aldeko inguru guztian sortu diren eraikin berriak eta hara bizitzera joan diren bikote eta familia gazteak bitarteko.

## II.1.1.- Familia jarraipenerako esparrua – Balorazioa:

### ADIERAZLEAK

#### Ama-hizkuntza euskara (%)- Iturria: Eustat

<b>UDALERRIA</b>	<b>1986</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>Aldea</b>
<i>Gernika-Lumo</i>	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	-5,38
<i>Bermeo</i>	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	-8,70
<i>Mungia</i>	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	-17,98
<b>EUSK. AUT. ELK.</b>		20,6	20,6	18,80	19,41	-1,19

Hemen beheranzko bidea dugu orokorrean, apurka-apurka baina beherantza. Hizkuntza-gaitasunaren kasuan gertatu moduan, 2001-2006 urte bitarteko inflexioa ere nabarmentzen da hemen ere, beherakada handiagoa da beste urteetan baino eta.

#### Etxean euskaraz egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)

<b>UDALERRIA</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>Aldea</b>
<i>Gernika-Lumo</i>	<b>% 41,07</b> 6.448 hiztun. 15.697 biztanle	% 41,00 6.331 hiztun 15.439 biztanle	% 41,79 6.379 hiztun 15.264 biztanle	<b>% 41,45</b> 6.625 hiztun 15.981 biztanle	+0,38
<i>Bermeo</i>	<b>% 55,74</b> 9.991 hiztun. 17.923 biztanle	% 55,89 9.601 hiztun 17.176 biztanle	% 53,56 9.072 hiztun 16.938 biztanle	<b>% 49,24</b> 8.267 hiztun. 16.789 biztanle.	-6,50
<i>Mungia</i>	<b>% 34,00</b> 4.046 hiztun 11.900 biztanle	%31,57 4.044 hiztun 12.807 biztanle	%27,64 3.817 hiztun 13.807 biztanle	<b>%22,59</b> 3.451 hiztun 15.275 biztanle	-11,41
<b>EUSK. AUT. ELK.</b>	<b>% 13,79</b> 290.329 hiztun 2.104.041 biztanle	% 13,63 286.092 hiztun 2.098.055	% 13,64 284.084 hiztun 2.082.587 biztanle	<b>%13,02</b> 277.277 hiztun 2.129.339 biztanle	-0,79

Inguruko herrietan kontrako joera izan bada, Gernika-Lumon etxe barruan euskararekiko fideltasuna mantendu egin da, EAEn dagoen joerari eutsiz.

## Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman hurrekin (ekainean zehar)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren “prestigioa”-k erakarrita? Asertibitatea?) Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gaintu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gaintu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdinak dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gune horretan.

## Gernikaldeko gurasoen jarrera euskararekiko (iturria: Gernika-Lumoko Berritzegunea -2010)

### LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA

IKASLEAK	Guraso biak euskaldunak	Guraso biak erdaldunak	Guraso bat euskalduna	Jatorrizko hizk. euskera	Jatorrizko hizk. erdera	Jatorrizko hizk. biak
05-06 ikasturtea 372	206 %55.37	63 %16.93	103 %27.68	229 %61.55	58 %15.59	85 %22.84
09-10 ikasturtea 398	216 %54.27	72 %18.09	110 %27.63	246 %61.80	74 %18.59	78 %19.59

### LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA

IKASLEAK	Guraso biak euskaldunak	Guraso biak erdaldunak	Guraso bat euskalduna	Jatorrizko hizk. euskera	Jatorrizko hizk. erdera	Jatorrizko hizk. biak
05-06 ikasturtea 370	201 %54.32	60 %16.21	99 %26.75	209 %56.48	84 %22.70	77 %20.81
09-10 ikasturtea 379	214 %56.46	64 %16.88	101 %26.64	224 %59.10	60 %15.83	95 %25.06

### LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

IKASLEAK	Guraso biak euskaldunak	Guraso biak erdaldunak	Guraso bat euskalduna	Jatorrizko hizk. euskera	Jatorrizko hizk. erdera	Jatorrizko hizk. biak
05-06 ikasturtea 321	147 %45.79	64 %19.93	110 %34.26	174 %54.20	71 %22.11	76 %23.67
09-10 ikasturtea 378	198 %52.38	75 %19.84	105 %27.77	220 %58.20	64 %16.93	94 %24.86

### DBH-ko LEHEN ZIKLOA

IKASLEAK	Guraso biak euskaldunak	Guraso biak erdaldunak	Guraso bat euskalduna	Jatorrizko hizk. euskera	Jatorrizko hizk. erdera	Jatorrizko hizk. biak
05-06 ikasturtea 412	215 %52.18	73 %17.71	124 %30.09	235 %57.03	105 %25.48	72 %17.47
09-10 ikasturtea 437	272 %62.24	60 %13.72	105 %24.02	247 %56.52	60 %13.72	130 %29.74









### DBH-ko BIGARREN ZIKLOA

IKASLEAK	Guraso biak euskaldunak	Guraso biak erdaldunak	Guraso bat euskalduna	Jatorrizko hizk. euskera	Jatorrizko hizk. erdera	Jatorrizko hizk. biak
05-06 ikasturtea 353	198 %56.09	67 %18.98	88 %24.92	193 %54.67	86 %24.36	74 %20.96
09-10 ikasturtea 354	177 %50	75 %21.18	102 %28.81	163 %46.04	53 %14.97	138 %38.98

## Gernikaldeko 12 urteko ikasleei egindako neurketa (iturria: Gernika-Lumoko Berritzegunea – 2010)

(ULIBARRI programako GELARGAZKIA)

**Tresnaren azalpenak: Koloreak eta zenbakiak (gehienezko puntuaketa 5)**

Gaztelaniaz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun argiz		<b>ZENBAKIAK</b>	1: Beti erdaraz 2: Erdaraz gehiago 3: Bietara berdin 4: Euskaraz gehiago 5: Beti euskaraz
Gaztelaniaz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun ahulez			
Euskaraz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun ahulez			
Euskaraz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun argiz			

### Batazbestekoa:

		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
Berba egin	Egin	3.28	3.72		3.71	3.72	3.15	4.19	4.38	4.09	4.39	3.55	2.49			3.70	4.04
	Jaso	3.28	3.72	2.52	3.67	3.60	2.95	4.20	4.50	4.07	4.53	3.55	2.49	3.03	2.49	3.30	4.04
Irakurri	Egin												2.49				
	Jaso												2.49		2.68		4.04
Idatzi	Egin												2.49				
	Jaso												2.49				

### kodeak

#### 1. Familia

- 1.1 Gurasoekin
- 1.2 Anai-Arrebekin
- 1.3 Gurasoak beraien artean

#### 2. Auzoa

- 2.1 Kaleko lagunekin
- 2.2 Auzoko ezagunekin
- 2.3 Auzoko ezezagunekin

#### 3. Eskola

- 3.1 Gelako lagunekin
- 3.2 Irakasleekin gelan
- 3.3 Lagunekin jolastorduan
- 3.4 Irakasleekin gelatik kanpo

#### 4. Komunikazioa

- 4.1 Telefonoz
- 4.2 Interneten
- 4.3 Irratia-musika entzun
- 4.4 TB, Bideoa, Zinea, Prentsa

#### 5. Kirola

- 5.1 Kirolean

#### 6. Eliza

- 6.1 Elizan

### Parte hartu duten ikastetxeak:

- Publikoak LH: 2 (lagina: LH-ko 6. mailako talde bana)
- Publikoak BH: 2 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)
- Itunpekoak: 3 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)

## Eraitzen irakurketa (Gernika-Lumoko Berritzeguna 2010):

### Eredu erdalduak:

1. Internet: **2.49**
2. TB, Bideoa, Zinea, prentsa: **2.49**
3. **Gurasoak beraien artean: 2.52 (%50,4)**. Gernikaldeko betiko arazoa: umeei euskaraz eta nagusien artean, erdaraz.
4. **Auzoko ezezagunekin: 2.95 (jaso). 3.15 (egin)**. Zergatik ezezagunei erdaraz zuzentzeko joera?

### Eredu euskaldunenak:

1. Eskola: **4** eta **5** tartean, hau da, eredu euskaldunena
2. Eliza: **4**tik gora
3. Anai-arrebekin: **3,72 (%74)**. Gurasoekin baino gehiago egiten dute euskaraz. Guraso bat erdaldu den kasuetan ere, euren artean euskaraz aritzen direla ematen du.
4. **Kaleko lagunekin. Aztertze moduko da.** Gelako lagunekin: **4.9 /4.20**, baina kaleko lagunekin: **3.71 /3.67**. Normalean, kaleko eta gelakoak berberak izanik, eragina al du eskolan egoteak?
5. Auzoko ezezagunekin: **3.72 (egin) 3.60 (jaso)**. Aldea dago egin eta jasoren artean, handirik ez baina.
6. Gurasoekin: **3.28** ( egin eta jaso -%65,6-). Anai-arrebekin egiten dutenarekin alderatuta (3,72) eta guraso erdalduen kopurua kontuan hartuta, ondorioa: guraso bat erdaldu den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du ana-arrebekin.  
Adin tarte honetako gurasoen datuak (**BRANKA**):
  - Guraso biak euskaldunak: % 57
  - Guraso biak erdalduak: % 16
  - Guraso bat euskalduna: % 27
7. Kirolean (eskolan): **3.70 /3. 30** eman du batz-bestekoa. Kasu honetan, komenigarria litzateke bereiztea eskolan egiten dena, nahiz eta ikastordutik kanpo izan. Kirol elkarte batzuk aztertze aukera emango luke, Gernikaldean behintzat.

### **II.1.1.1.- Pozteko ondorioak(familia jarraipena):**

#### **1.- Biztanleriari dagokionean, Gernika-Lumoko biztanleria zahartzen ari da**

- **0-19 urte bitartekoak:** 1981ean %33,10 eta 2011n %17,88 (**ia erdira jaitsi da**)
- 20-64 urte bitartekoak: 1981ean %56,48 eta 2011n %61,14 (gora 5 puntu)
- **64 urte <:** 1981ean %10,40 eta 2011n %20,97 (**bikoiztu egin da**)

Azken urteetan jaiotza tasak gora egin badu, etorri berrien familiei eskerrak izan da. Beraz, euskararen ondorengoetaratzeko ziurtatzeko familia esparruaren eragina gutxituz doa eta egoera hori orekatzeko, beste belaunaldi bat edo bi beharko dira; etorri berrien seme-alabak lehenengo euskaldundu, gero erabilerara erakarri eta, hizkuntza integrazioa lortu ondoren, eurek bihar-etzi sortuko dituzten familietan euskararen transmisioa ziurtatu (bide luzea eta ikuspunturik arrakastatsuen...).

**2.- Euskaldungoa 20-45 urte bitartean pilatzen ari da gehiengoa eta hortxe kokatzen dira urte gutxi barruko gurasoak,** etxean hizkuntzaren ondorengoetaratzeko gauzatzeko biderik naturalena. Helduen multzoko datuak: 1986an 8.741 biztanletik %62,7, hau da, 5480 euskaldunak; 2001ean 9.934 biztanletik %62,4, hau da, 6.198 euskaldunak.

**3.- Adinekoen artean euskaldunen portzentajea jaitsi egin den arren, kopurutan euskaldun gehiago dira:** 1986an 1.827 biztanleetik %74, hau da, 1.351 euskaldunak; 2001ean 2.864 biztanletik %69,4, hau da, 1.987 euskaldunak. Egungo attitte-amuma euskaldun gehiago ume gutxiagorako bada, ondo.

**4.- Plan Estrategikoaren bitartez landu beharreko esparru berria zen 2003an familiarena** eta lehenengotik eskaini zitzaion diru kopuru garrantzitsua (2003an 16.828 €, helburu nagusirako aurrekontuaren %9,17). Gero, jaitsi egin da asko (2011an 12.000 euro eta 2012an, krisia bitarteko, 1.500 euro), baina familiarena lantzeko zeharbidetik jo da, hezkuntza esparrutik: zentroetako Normalkuntza Planetarako diru laguntzen bitartez (“familia esparrua lantzeko ekintzak”: batik bat, gurasoei begirako estrategiak), eskolaz-kanpoko ekintzetan gurasoen inplikazioa landuz, familien arteko lehiaketa erraldoia - 2012an baztertua-,...

**5.- Anbulatorioarekin hitzarmena sinatzerik ez da posible izan,** baina bertako arduradunekin harremanak lantzea bai. Anulatorioko harrera zerbitzuagatik kexaren bat edo beste izan arren, **pediatria zerbitzua euskararen arnaguneetako bat dela esan dezakegu** (2012ko ekainean zehar egindako inkesta oinarri).

**6. Inguruko udalerrietan ez bezala, etxean euskaraz berba egiten dutenen portzentajea mantendu egin da Gernika-Lumon,** nahiz eta ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi (5,38 puntu gutxiago 1986tik 2006ra bitartean). Etxean euskeraz egiten zutenak 1991ean 6.448 (biztanleak guztira 15.697) eta 2006an 6.625 (biztanleak guztira 15.981). Ondorioa: euskaldungoak gora egin izateak mesede egin dio etxeko erabilera mantentzeari eta islatzen da euskaldun berriak ere sartu direla etxean euskara erabiltzen dutenen multzoan.



**7.- Gurasoen transmisioari dagokionean datu oso onak atera dira irakaskuntza mailan** (Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak). 2005-2006 ikasturteko datuekin konparatuz, jatorrizko hizkuntza erdara duten ikasleen kopurua jaitsi egin da nabarmen ziklo guztietan (salbuespena, LH-ko 1. zikloa) eta jatorrizkoa biak, euskara eta erdara, dakartenak gehiago dira, aipatu albuespena kontuan. Ondorioa: guraso euskaldunen inplikazioa handia da, ume zaintzailea/attitte-amumak euskaldunak...

8.- (Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak) Ikasleek anai-arrebekin euskaraz egiten dutena (3,72 -%74-,) eta guraso erdaldunen kopurua kontuan hartuta (biak erdaldunak %16 eta euretako bat erdalduna %27), **ondorioa: guraso bat erdalduna den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du ana-arrebekin.**

9.- Alkarbide Erakundearen koordinaziopean, **beste Euskara Zerbitzuekin elkarlanean kanpaina eta material asko ekoizten ari gara** (Udako urteroko sentsibilizazio kanpaina, Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua, Ku-Ku! Liburuxka -hurrekin hitz egiten hasteko-, Aholkuak seme-alabek irakur dezaten, Euskaraz oparitu kanpaina...).

### **II.1.1.2.- Kezkatzeko ondorioak (familia jarraipena):**

**1.- Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2006 urte bitartean Gernika-Lumon (% 5,38 gutxiago).** Autonomia Elkartearen beherazko bidea dugu orokorrean eta inguruko udalerrietan areagotu egin da jaitsiera hori. Datu hau bat dator euskararen ezagutzan tarte berean izandako inflexio handiagoarekin (euskararen ezagutza 1996an %70,9koa zen eta 2006an %67,87koa). Etorri berrien eragina ziur asko.

**2.- Ama-hizkuntza gaztelania dutenen portzentajeak gora egin du** (1991ean 4.967 biztanle -%32,5- eta 2006an 5.467 biztanle -%34,20-). Erdara ez beste hizkuntzetako ama-hizkuntzak nabarmenago egin du gora: 2001ean %0,89 (137 biztanle), 2006an %3,60 (575 biztanle) eta 2012an %7 (1.300 biztanle). Igoera biak batuta, biztanleriaren %9a ateratzen zaigu, justu etorkinen portzentajea.

**3.- Etxeko erabilerak ez du gora egin 1991-2006 bitartean,** euskaldun kopuruak gora egin duen arren. Dena dela, Gernika-Lumon etxeko erabilera mantendu egin da, nahiz eta inguruko udalerrietan eta EAE mailan jaitsiera izan.

**4.- Beldur gara hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente bakartzat ez ote den ikastetxea hartuko,** familiaren bidea bigarren mailan geratuz. Beharrezko da, hargatik, familietara beste bide batzuetatik ere ailegatzea (ambulatorioa, guraso elkarteak, ...).

**5.- Gurasoen transmisioari dagokionean, LH-ko 1. zikloko datuak zerbait kezkatzekoak dira (Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak).** Multzo horretan, 2005-2006 ikasturteko datuekin konparatuz, 2009-2010 ikasturtean gora egin du jatorrizko hizkuntza erdara duten ikasleen kopuruak eta jaitsi euskara dutenena. LH-ko 1. zikloan gertatua ulertzeko, HH-ko 5 urteko gelak ere aztertu beharko lirateke.

6.- Umeek gurasoekin euskaraz dihardute %65,6ko portzentajea (Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak) baina **gurasoak euren artean gutxiago, euskaraz %50,4koan** (helduek kalean egiten dutena - %43,30- baino zerbait gehitxoago)

**7.- Zailagoa da familiaren esparruan ekitea beste batzuetan baino,** ez dagoelako gizarte mailan familiaren partaidetza bidera dezakeen erakunderik. Daukagun egitekorik garrantzitsuena: **Euskara Zerbitzuak udal saila desberdinekin elkarlana bultzatu beharra,** familia osoari begirako egitasmoak burutzearren udal saila guztietatik. Normalizazioak berak eskatzen du edozein arlotan “familia osoarentzat eta euskaraz” jarduerak burutu edo hizkuntzarekiko jarrerak landu beharra (adibidea: pediatria).

**8.- Atzerritarren ia %78ak gaztelania du harremanetarako zubi hizkuntza** (batzuk ama hizkuntza dutelako -%23 bat- eta gainerako %55ak erromantze hizkuntzatik datozeelako –errumaniarrak-). Nahiz eta errumaniera guretzat arrotza izan, eurek erraz egiten dute errumanieratik gaztelaniarako bidea eta horri eusten diote euskarari baino lehen. Gainerakoek (Senegal, Ukraina, Aljeria eta Sahara, ...) erreparo gutxiago diote euskara ikasteari, baina, tamalez, etorri berrien kopuru osoan gutxi dira.

## II.1.2.- Euskalduntze-alfabetatze esparrua- Balorazioa:

Euskaltegiak 2011-2012 ikasturtea (Gernika-Lumo)			
Euskaltegia	Mota	Sarea	Ikasleak
AITA VILLASANTE U.E.	Publikoa	Udal euskaltegia	158
BUSTURIALDEKO AEK	Homologatua	AEK	137
<b>GUZTIRA</b>			<b>295</b>

### 1986-2012 epeko matrikulazio portzentajeen bilakaera mailaka ( Iturria: HABE)

Euskalduntze-alfabetatzearen eta bermatrikulazioaren bilakaera, ikasmilaren arabera (Gernika-Lumo)												
	Euskalduntze-alfabetatzea						Bermatrikulazioa					
	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa	4. maila	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa	4. maila
1986-87	788	50,89	18,40	0,00	30,71	---	17,89	22,69	10,34		14,46	---
1987-88	483	41,82	7,87	0,00	50,31	---	24,02	29,21	39,47		17,28	---
1989-90	347	45,53	15,85	0,00	38,62	---	25,94	36,08	12,73		19,40	---
1990-91	353	55,81	19,55	8,50	16,15	---	30,03	33,50	8,70	10,00	54,39	---
1992-93	479	52,40	7,72	11,27	28,60	---	33,40	33,47	27,03	27,78	37,23	---
1993-94	451	46,34	7,76	18,63	27,27	---	23,95	24,40	34,29	17,86	24,39	---
1994-95	333	52,85	9,01	22,52	15,62	---	25,83	35,80	23,33	12,00	13,46	---
1996-97	265	32,45	11,32	10,57	45,66	---	32,45	54,65	56,67	14,29	14,88	---
1999-00	350	33,71	14,57	5,14	46,57	---	35,14	46,61	68,63	11,11	19,02	---
2000-01	310	37,74	14,19	8,06	40,00	---	32,26	42,74	45,45	40,00	16,13	---
2002-03	264	30,30	8,71	12,12	48,86	---	33,33	35,00	69,57	40,63	24,03	---
2003-04	310	25,16	9,35	10,32	55,16	---	31,61	42,31	27,59	25,00	28,65	---
2004-05	337	24,63	9,20	29,67	36,50	---	36,80	48,19	61,29	28,00	30,08	---
2005-06	392	29,85	9,18	22,70	38,27	---	33,67	48,72	58,33	22,47	22,67	---
2006-07	358	37,15	10,61	23,18	29,05	---	33,79	42,85	36,84	30,12	24,04	---
2007-08	369	44,17	11,11	21,13	24,41	---	31,43	34,35	37,05	24,67	29,21	---
2008-09	384	38,80	10,41	28,38	23,69	6,25	28,64	34,89	43,58	24,52	15,55	4,16
2009-10	365	37,26	8,49	26,57	23,83	3,83	20,27	20,58	45,16	20,61	12,64	7,14
2010-11	243	28,57	12,75	32,92	18,10	7,40	26,10	47,14	38,70	23,75	25,00	11,11
2011-12	295	41,35	17,96	24,74	10,50	5,42						

**2000-2012 epeko matrikulazio kopuruen bilakaera mailako (Iturria: HABE)**

Euskalduntze-alfabetatzea						Bermatrikulazioa					
Ikasturtea	1. maila	2. maila	3. maila	Alfa	4. maila	Ikasturtea	1. maila	2. maila	3. maila	Alfa	4. maila
<b>2000-2001</b>	<b>117</b>	<b>44</b>	<b>25</b>	<b>124</b>		<b>2001-2002</b>	<b>50</b>	<b>20</b>	<b>10</b>	<b>20</b>	
2001-2002	71	42	35	116		2002-2003	31	14	12	23	
2002-2003	80	23	32	129		2003-2004	28	16	13	31	
<b>2003-2004</b>	<b>78</b>	<b>29</b>	<b>32</b>	<b>171</b>		<b>2004-2005</b>	<b>33</b>	<b>8</b>	<b>8</b>	<b>49</b>	
2004-2005	83	31	100	123		2005-2006	40	19	28	37	
2005-2006	117	36	89	150		2006-2007	57	21	20	34	
2006-2007	133	38	83	104		2007-2008	57	14	25	25	
2007-2008	163	40	77	89		2008-2009	56	15	19	26	
2008-2009	149	39	106	90	24	2009-2010	52	17	26	14	1
2009-2010	136	31	97	87	14	2010-2011	28	14	20	11	1
<b>2010-2011</b>	<b>70</b>	<b>31</b>	<b>80</b>	<b>44</b>	<b>18</b>	<b>2011-2012</b>	<b>33</b>	<b>12</b>	<b>19</b>	<b>11</b>	<b>2</b>
2011-2012	122	53	73	31	16						

### **II.1.2.1.- Pozteko ondorioak(euskalduntze-alfabetatze esparrua):**

- 1.- Plan estrategikoaren bitartez, indarririk gehien hartu duen esparruetako bat dugu alfabetatze-euskalduntzea:** 2003an 6.010 €-ko aurrekontua (helburu nagusirako erabilitakoaren %3,28) eta 2012an 45.132 €-koa (%7,47).
- 2.- Esparru honetako betetze-maila ehunetik ehunekoa izan da** (aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu dira), euskalgintzako eragileekin (Udal Euskaltegia eta AEK euskaltegia) izandako elkarlana bitarteko.
- 3.- Gernika-Lumoko euskaldungoa 2006an %67,87 izanik, gehiengoa, %73,64, alfabetatua da;** 2001eko datuen arabera % 70,2a zen alfabetatua. Beraz, **gora egin du 3 puntu.**
- 4.-** Ia euskaldunen portzentajea 2006an %17,38a bazen, hauetatik **%50,55a alfabetatua zen.** 2001 urtean, ostera, ia-euskaldunak %17,30 eta, hauetatik, alfabetatuak %46,50. **Gora egin du lau puntu** datu honek 2001-2006 urte bitartean.
- 5.-** Udalerri mailan dauden **eragileen arteko koordinazioa egonkortzeari ekin zaio 2008-2012 urte bitartean.** Aipagarriak hurrengo foroak: Berbalagun egitasmorako Talde Eragilea (2004tik bizirik) eta etorkin helduen euskalduntzerakoa (2011n sortua). Partaideak: Udal Euskaltegia, Gernikako AEK, Busturialdean Euskaraz Biziz, Inmigrazio teknikaria.
- 6.-** Euskaltegiek eskaintzen dituzten **moduloak, ordutegiak eta herritarren eskaerak uztartzeko ahaleginak egin eta lorpenak izan dira.** Egia esan, horren konponbidea ez dago oso-osoan euskaltegien eskuetan, HABErenean baizik, eta azken urteotan horri begirako urrats egokiak eman dira (guraso talde bereziak EBPN-kotzat hartu eta homologatu egiten dira). Aurreko ikasturteetan 20/25 ikasle matrikulatu izan dira guraso-talde berezietarako eta 2011-2012 ikasturtean 42 izan dira.
- 7.-** Nahiz eta euskaltegiako matrikulazio orokorrak beherantz jo, **euskalduntze urratsetako kopuruak mantendu egin dira** (1., 2. eta 3. mailak); 1996-2003 urte bitarteko beheranzko joera aldatu egin zen 2005ean eta, ordutik hona, berpizte horri eutsi egin zaio euskalduntzerako matrikulazioan gora-behera gutxirekin.
- 8.- Azpimarratzekoa dugu 2008an abian jarri zela Udal Euskaltegian 4. maila** (maila teknikorako ikastaroa) eta emaitza onak izanik. Erailerari erantsi beharreko beste urrats baterako bidea ireki da: euskararen kalitatea, euskara teknikoa.
- 9.-** 2001eko datuen arabera, **geografikoki udalerrian elebidunen presentzia nahiko orekatua zen** (9 gunetan elebidunen portzentajea %60tik gorakoa zen). Euskaldunen dentsitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta baldintza hobek euskararen erabilpenerako. 2001eko mapa hori, gaur egun aldatu egin da (Lurgorriko eraldaketa erraldoia), baina, tamalez, Eustatek ez du jaso horrelako daturik egindako azken erroldatze lanetan. Dena dela, kale

neurketaren erabilera datuek adierazten digute erdialdean jaitsi egin dela erabilera et Lurgorriin, ostera, gora egin duela nabarmen (agian, euskaldunen dentsitatearen aldaketa bitarteko?).

**10.-** Horrekin batera, nabarmendu egin behar da **euskaldunak euskaraz alfabetaturik daudela neurri handi batean**: 2001ean biztanleriaren % 48,64 (7.510 bizilagun, euskaldunen %70,2) eta 2006an bitanleriaren %49,98 (7.771 bizilagun, euskaldunen %73,64).

### **II.1.2.2.- Kezkatzeko ondorioak (euskalduntze-alfabetatze esparrua):**

**1.- Giza-talde bereziei begirako eskaintza indartu egin beharko litzateke gehiago oraindik**, (merkataritza, ostalarita,...) HABEk eskaintzen dituen moduluetatik kanpo baleude ere. Horra hor eredu guraso taldeena.

**2.- Ekiditu egin behar da Berbalagun egitasmoa heziketa prozesu batekin lotzeko pertzeptzioa sortzea, hau da, euskaltegien dinamikatik kanpora atera behar da.** Berbalagun heziketa ez formalarekin lotzeko, berbalagunkideen jarduerak gizarteko egoera arruntetan txertatu behar dira. Irizpide horri begira eratzen da Berbalagun proiektuaren ekintza planteamendua, baina, esan behar da, planteatutako dinamika ikasturtekoa dela eta arriskua daukagula heziketa formalarekin lotzeko.

3.- Azpimarratzekoa dugu 1994-2003 epean **matrikulazioak** izandako beheranzko joera gainditu egin zela 2004tik 2008ra bitartean, baina, zoritxarrez, **2008tik ona beheranzko joera dago berriro** eta datu horiek errepikatu egin dira azken bi ikasturteetan.

**4.- Alfabetatzerako matrikulazioa erdira jaitsi da azken bi urteetan (2010 eta 2011)** eta ez da sasoi pentsatzeko alfabetatze beharrizanik ez dagoenik, kontuan hartzen badugu Gernika-Lumoko biztanleria zaharkitzen doala eta heldu eta adinekoen artean dagoela euskaldungoaren gehiengoa. Honen aurrean, beste estrategia batzuk landu beharra dago eta BERBALAGUN egitasmoa egokia da helduen erabileran eta trebakuntzan eragiteko.

5.- Euskalduntze-alfabetatze esparrurako ekintzak sendotu beharra daukagun sasoi honetan, arazo bat daukagu: bizi dugun krisia bitarteko, **Berbalagun egitasmorako diru gehiago bideratzea zaila egingo zaigu**, ez badiogu lehentasun osoa ematen honi eta beste zerbait bazterten.

6.- **2006ko datuen arabera**, euskaldungoaren %2,8 bat da euskaraz ezer alfabetatu bakoa (298 biztanle); **ia euskaldunetatik %29,32a de alfabetatu bakoa** (815 bizilagun). Hortxe dago zuloa; ia euskaldunen multzoan eragin eta alfabetatu beharra dago, euskaldunen otzaran pilatzeko.


## II.1.3.- Irakaskuntza esparrua - Balorazioa

### ADIERAZLEAK

#### Matrikulazioaren bilakaera (1984-2012)

IKASTURTEA	Eskol OHO	BBB UBI	Lanb. Hez.	Esk. OHO	BBB UBI	Lanb. Hez.	Esk. OHO	BBB UBI	Lanb. Hez.	GUZTIRA EREDUKA		
	(A)	(A)	(A)	(B)	(B)	(B)	(D)	(D)	(D)	(A)	(B)	(D)
84 / 85 G. A.	829	866	360	897	-	-	1758	216	-	%46	%18	%40
	Eskol OHO	BBB UBI	LH IEE (A)	Esk. OHO	BBB UBI	LH IEE (B)	Esk. OHO	BBB UBI	LH IEE (D)			
88 / 89	126	687	270	883	35	61	1987	454	31	%24	%21	%55
91 / 92	-	440	252	666	96	30	1908	626	159	%17	%19	%64
	Haur, Lehen Hezk. (A)	BBB UBI DBH (A)	LH IEE Modu(A)	Haur, Lehen Hezk (B)	BBB UBI DBH (B)	LH IEE Modu (B)	Haur, Lehen Hezk.. (D)	BBB UBI DBH (D)	LH IEE Modu (D)			
96 / 97	-	310	-	365	154	-	1366	911	222	%9	%16	%75
97 / 98	-	174	189	230	176	-	1349	1150	160	%10,5	%11,8	%77,5
99 / 00	-	113	86	200	147	-	1408	1214	50	%6,1	%10,7	%83
2001/2002	-	-	64	134	112	-	1581	698	618	%1,9	%7,6	%90,3
2002/2003	-	-	31	132	105	-	1628	678	607	%0,9	%7,4	%91,5
2003/2004	-	-	32	123	105	-	1679	1094	117	%1,01	%7,2	%91,7
2004/2005	-	-	-	121	90	-	1733	698	526	%0	%6,7	%93,3
2005/2006	-	-	29	106	86	-	1793	716	538	%0,95	%6,30	%93,23
2006/2007	-	-	24	76	87	-	2074	690	402	%0,71	%4,86	%94,42
2007/2008	-	-	21	57	90	-	1820	789	630	%0,62	%4,31	%95,07
2008/2009	-	-	22	38	87	-	2103	1210	-	%0,64	%3,64	%95,72
2009/2010	-	-	22	-	84	-	2171	1247	-	%0,63	%2,38	%96,99
2010/2011	-	-	18	-	83	-	2245	1270	-	%0,50	%2,29	%97,21
2011/2012	-	-	11	-	76	-	2314	1270	-	%0,30	%2,07	%97,63


- D ereduaren goranzko joera etenik bakoa izan da 1984tik ona eta gaur egungo ikaslearen % 97,63 dabil eredu horretan, ikasle etorkinen matrikulazioa azken sei urteetan nabarmena izan den arren. Horrek esan nahi du udalerriko hezkuntza-sistemak apostua egin duela etorkinak D ereduaren integratzeko, arazoak arazo eta horrek dakarren lan zamari aurre eginda.



Azken zortzi urteotan ikasle etorkinen kopurua bikoiztu baino gehiago egin da eta bertoko jaiotza tasa zerbait igo den arren, ikasle etorkinei zor zaie kopuru orokorrak gora egitea.



### Ikasle etorkinen matrikulazioa zentroka (bilakaera)



	Allende Salazar	Barrutia	Barrutialde	Gernika BHI	Mertzede	San Fidel	Seber Altube
2003/4	17	0	1	19	52	12	2
2005/6	20	4	2	20	59	23	7
2007/8	37	6	7	20	106	36	16
2009/2010	43	3	13	19	105	45	17
2011/12	60	20	13	26	141	46	18

Ikastetxeak	Ikasle 2011/2012	Etorkinak 2011/2012
CEP Allende	747	60 (8%)
CEP Barrutia	290	20 (6,8%)
IES Barrutialde	238	13 (5,5%)
IES Gernika	772	26 (3,3%)
La Merced	301	141 (46,8%)
San Fidel	719	46 (6,3%)
Seber Altube	655	18 (2,7%)
Montorre (Arteg)	48	10 (20%)
Mundaka	155	7 (4,5%)
Ucelay (Busturi)	123	6 (4,8%)
Urretxindorra	100	8 (8%)
<b>Publikoak</b>	<b>2.473</b>	<b>150 (6%)</b>
<b>Kontzertatuak</b>	<b>1.675</b>	<b>205 (12,2%)</b>
<b>Orokorra/Total</b>	<b>4.148</b>	<b>355 (8,5%)</b>

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)

- Ikasle etorkinen matrikulak %63,27 zentro kontzertatueta eta %36,73 zentro publikoetan.
- Mertzede Ikastetxea da etorkinak pilatuta dauden ikastetxea. Bilakaera goranzkoa da etenik gabe: 2003an %16a; 2005ean %29,4a; 2009an %35,8a; 2011/2012 ikasturtean 301 ikasle guztira eta 141 etorkinak -%46,8-.
- 2011/2012 ikasturtean asko areagotu da etorkinen matrikulazioa.

**EUSKARAREN NORMALIZAZIO PLANGINTZAK DITUZTEN ZENTROETAN  
GERNIKA-LUMOKO UDALAK DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK**

<b>PROGRAMA MOTA</b>	<b>DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMA KOPURUA URTE BAKOITZEKO</b>					
	<b>2003 18.000 €</b>	<b>2005 21.000 €</b>	<b>2007 25.000 €</b>	<b>2009 25.000 €</b>	<b>2010 25.000 €</b>	<b>2011 20.000 €</b>
<b>Familia transmisioan eragiteko programak</b>	---	---	---	---	7	12
Irakurzaletasuna	20	31	26	24	28	24
Euskara Zine Aretotara	3	8	7	13	7	7
Normalkuntza planak martxan jartzeko / garatzeko	12	16	21	25	23	17
Etorकिनen seme-alabei zuzendutakoa	5	7	5	6	5	8
Barru/kanp. Komunikazioa	1	11	10	7	5	4
Errotulazioa	2	---	---	---	---	---
	<b>43</b>	<b>73</b>	<b>69</b>	<b>75</b>	<b>75</b>	<b>72</b>

Zentroetako Normalkuntza Planak eta Udalaren Plan Estrategikoa uztartzearen adierazgarri goiko taula, Normalizaziorako diru laguntza deialdiaren arabera urte bakoitzean irakaskuntza zentroetan garatu izan diren programa kopuruak azaltzen dituena. Banatu den kopuruaren bilakaera: lehenengo urteetan gehituz, 2007-2010 urte bitartean 25.000 eurotan mantendu eta gero gutxituz joan da, krisia aitzakia eta beste arlo batzuen lehentasunen arabera (lan-mundua,...); 2012rako aurreikusitakoa 15.000 euroko partida da.

### **II.1.3.1.- Pozteko ondorioak(irakaskuntza esparrua):**


- 1.- Esparru hauxe zen **euskararen normalizazioaren ikuspuntutik garatuen genuena** 2003/2008 urteetako Plan Estrategikoa prestatzerakoan eta, gure ustez, emaitzarik onenak izan dituen egindako inbertsioarekin. 2008-2012 eperako Plan Estrategikoan neurritu beharra egon da, beste esparru batzuetako lehentasunei aurre egin ahal izateko (lan-mundua batik bat).
- 2.- **Udalerriko zentro guztiek hartzen dute parte Udal Eskola Kontseiluan**, gehi Barrutia ikastetxeak eta Barrutialde Institutuak, Arratzuko udalerrian kokaturik egon arren bertoko ikasleak doazelako euretara. Guztiek dute Normalkuntza Plana.
- 3.- **Betetze-mailari dagokionean, aurreikusitako ekintzak ia denak burutu izan dira**, esparru honetan bizi-bizirik dagoen bilgunea/koordinazio-gunearen egonkortasunari eskerrak: Udal Eskola Kontseilua.
- 4.- Aztertu beharreko gaiaren arabera, **gainerako agenteek ere hartzen dute parte** (inmigraziorako teknikaria, berritzeguneko teknikariak, udal euskaltegia, AEK euskaltegia) Udal Eskola Kontseiluan modu iraunkorrean.
- 5.- Zentro bakoitzaren normalkuntza beharrianak desberdinak izan arren, **guztien artean eskolaz-kanpoko egitarau komun bat mantendu da**, horretan ekiteko hizkuntza irizpide bateratuekin jokatu ahal izanik.
- 6.- Ezagutzari eta erabilerari dagokionean, familia esparrua aztertzeke arestian azaldutako grafikoak kontuan (ikus Berritzegunearen azterlanak), **irakaskuntza esparrua da euskaldunena**.
- 7.- **Udalerrian D eredia da nagusi eta goranzko joera etenik bakoa izan da 1996-1997 ikasturtetik ona**, ikasle etorkinen matrikulazioaren pisua areagotu egin den arren azken hamar urteetan. Azpimarratzekoa da Mertzede ikastetxearen ahalegina, normalizaziorako inplikazioa eta martxan jarritako baliabideak, eta lortutako emaitzak.
- 8.- **Familia esparrua lantzeko aukera eman digu irakaskuntzakoak**. Normalkuntza Planetan 2010etik hona diruz lagundutako egitasmoak horren seinale.

### **II.1.3.2.- Kezkatzeko ondorioak(irakaskuntza esparrua):**

- 1.- Irakaskuntzarena mantentzearekin nahikoa lan dugula uste dugu eta **beldur gara krisiak ekarri duen baliabide mozketak** (laguntzarako irakasleak,...) eraginik izango duen normalizazioan. Bilakaerak esango digu.
- 2.- Normalizatuena jotzen dugun esparruan, ikasle etorkinen matrikulazioa asko igo da 2012an ere. Beste eskualde batzuetan kontrako joera izan da (etorkinak eta ikasle etorkinak gutxitzea).
- 3.- Kezka horren ildotik, **Mertzedeko ikastetxean ikasle etorkinen pilaketa areagotu egin da**. Hezkuntza Sailak duen protokoloa nahiko ez eta 2005ean Udala Eskola Kontseilua bihurtu dugu foro etorkinen matrikulaziorako ahozko konpromisoak hartzearen guztion artean. Mertzedeko ikastetxeko bilakaera goranzkoa izan da etenik gabe: 2003an %16a; 2005ean %29,4a; 2009an %35,8a; 2011/2012 ikasturtean 301 ikasle guztira eta 141 etorkinak -%46,8-. Beraz, gure asmoak ez dira bete puntu honi dagokionean.
- 4.- **Ikasle etorkinen kopurua bikoiztu egin da azken lau urteotan** eta, bertoko jaiotza tasa zerbait igo den arren, ikasle kopuru orokorrak gora egin du ikasle etorkinen kopuruak gora egin duen neurrian.
- 5.- **Zentro kontzertatuetan zailago egiten zaie erakunde publikoei ekitea** eta beste eskualde batzuetako joeraren kontra, Gernika-Lumon zentro kontzertatuetan daude pilatuta ikasle etorkinak (pribatuetan %63,27 eta publikoetan %36,73), Mertzedeko ikastetxean hain zuzen.

## II.2.- Bigarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ERABILERA

### ADIERAZLEAK



Iturria: SEI Elkartea

**Gernika-Lumon euskararen erabilerak bilakaera positiboa izan du hogeita hiru urtetan (1989-2011): 17,2 puntu igo da, oro har, Gernika-Lumoko erdiguneko erabilera. Dena den, hazkunde hori 1993-2001 urte bitartean dagokiola azpimarratu behar da.**

**2001etik hona mantendu egin da erabilera gorabehera gutxirekin: 2006ko neurketan behera egin zuen erabilerak erdigunean (3 puntu behera) eta 2011koan gorra egin du puntu erdi bat.**

2006an egindako neurketarako fitxaren atzeko aldean **“beste hizkuntzak”** jasotzen izan dira; hau da, herrian euskara edo gaztelera ez zen beste hizkuntza bat entzuterakoan atal honetan sartzen izan ziren behatutako pertsonak. Orduan %1,78a zen (61 pertsona) “beste hizkuntzak” atalean jaso zena; **2011n, oster, %5,2** (320 pertsona).

## Gernika-Lumon erabilera zonaldeka

IBILBIDEA	201eko erabilera	2006ko erabilera	2011ko erabilera
1. Erdialdea	% 57,2	% 52,5	%47,2
2. Lurgorri	% 51,6	% 54,3	%57,3
3. Errenteria/Lorategieta	% 43	% 44,8	%37,4
<b>HERRIAN</b>	<b>% 54,3</b>	<b>% 51,5</b>	<b>%52,0</b>
4. Seber Altube ikastola	% 84,1	% 77,3	%68,0
5. Merkatu plaza - Institutua-...	% 60,5	% 66,2	%51,6
6. Allende Salazar ikastetxea	% 65	% 53	%62,9
<b>IKASTETXE INGURUETAN</b>	<b>% 68,5</b>	<b>% 65,8</b>	<b>%60,8</b>


Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

2011n Lurgorri (% 57,3) jaso zen batuz bestekorik altuena, eta bilakaera positiboa du erabilera inguru horretan 2001etik hona; erdialdean eta Errenteria/Lorategietan erabilera beheranzko joera du tarte horretan.

Emaitzak datu orientagarri eta hurbilpenekoak baino ez dira, auzo batetik besterako biztanleen mugimendua handia izan delako azken urteetan. Ondorioa hau da: etorri berrien pilaketa erdialdean eta Errenteria/Lorategieta inguruetan gertatu da.

2011n herrian behatutako erabileratik (% 52,3) ikastetxe inguruetan behatutakora (% 60,8) alde nabarmena (8,5 puntukoa) dagoen arren, aldea asko murriztu da (2001ean eta 2006an aldea 14 puntukoa zen).

Adin-taldekako erabileraren bilakaera Gernika-Lumon




Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2011 urte bitartean erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak: **gazteen erabilera 45 puntu areagotu** da, eta **haurrek, berriz, 34,1 puntu gora** egin dute erabileran. Ezagutzari dagokionez, 201eko eta 2006ko datuetan gazteen ezagutza haurrenaren gaitetik ageri zen; beraz, oso nabarmena da haur izateak gazte izatera igarotzean hizkuntza ohiturak aldatu egiten direla. Dena dela, azpimarratu behar da **gazteen eta haurren arteko erabilerak alderatuta, diferentziak murriztuz doazela urteekin**. Datu oso positiboa.

**Helduen erabilera**, oro har, **8,3 puntu igo** da aztertutako hogeita hiru urteren buruan; 1989tik 2001era bilakaera positiboa (10 puntu gora) eta 2001etik 2011ra mantendu.

**Adinekoetan**, berriz, **behera egin du erabilera 17 puntu**. Beherakada hori 2001-2011 urte bitartean nabarmendu da.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra

**Sexuaren araberako erabilera GERNIKA-LUMO**




Egindako neurketa guztien arabera, hiztuna emakumezkoa ala gizonezkoa izateak oro har ez du eragin esanguratsurik euskara erabiltzerakoan, gaur egungo gizartean behintzat. Beste kontu bat da euskararen transmisiorako haurrekiko harremanetan emakumearen paperak duen garrantzia, beste sasoi batzuetan gehiago, baina gaur egun baita.

**Gizonezkoen erabilera puntu bat gehiagokoa da 2011n.** Aldea ez da adierazgarria; 2001ean ere alde berbera zen; bitxia 2006koa, 5 puntuko aldera agertzen delako, baina auskalo zer bariablen eragina izan den.

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra*

**Haurren presentziaren eragina erabileran GERNIKA-LUMO**



Dakusagunez,, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean (2011n %63,1, kaleko erabilera orokorraren gaintik -%52-)**. Argitu behar da, haurren presentzia soilak ez duela eragin nabarmenik helduen/adinekoen erabileran, elkarrizketan parte hartzeak baino.


2001, 2006 eta 2011ko neurketetan antzeko joera ikus dezakegu, baina gauza pare bat argitu behar:

- Haurrak bakarrik daudeneko datuak mantendu egin dira.
- Nagusiak haurrik barrik daudeneko datuetan jaitsiera izan da eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenetakoetan ere bai.

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra*

**Ezagutza, espero daitekeen erabilera, eta erabilera erreala**

■ Ezagutza (01) ■ Espero daitekeen erabilera ■ Erabilera erreala




**Hona hemen 2006ko neurketaren arabera Soziolinguistika Klusterrak egindako hausnarketa:**

“Gernika-Lumoko ezagutza maila Bermeokoa eta Lekeitiokoa baino baxuagoa da, eta Zornotzakoa baino 15 puntu altuagoa. Erabilerari dagokionez, ostera, proportzioan Gernika-Lumon erabilera maila altuagoa jaso da gainerako herrietan baino. Izan ere, Gernika-Lumon erabilera erreala espero daitekeena baino 12 puntu altuago ageri da; Bermeon eta Zornotzan diferentzia hori apalagoa da (11 puntukoa eta 4 puntukoa, hurrenez hurren), Lekeitio, berriz, erabilera erreala espero daitekeena baino 5 puntu baxuago ageri da.”

Iturria: Soziolinguistika klusterra

I. GRAFIKOA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. GERNIKA-LUMO ETA BERMEO, 2011 (%)



**Bitxia 2011ko neurketaren arabera egindako alderaketa (Soziolinguistika Klusterra):**

“Gernika-Lumo eta Bermeo ez dira os ezeberdinak hitzkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera kontuan hartuta (Txillardegiren eredu matematikoa).

Erabilera errealarari errapatatuz, ostera, Gernika-Lumon dezente gehiago egiten da euskaraz Bermeon baino (%52 eta %36,6, hurrenez hurren).

Bermeon, erabilera erreala baldintza isotropikoetan espero daitekeenaren azpitik gelditu da... Gernikako erabilera, ostera, parametro arruntagoetan agertzen zaigu; ezagutzaren azpitik eta baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabileraren gainetik.”

Iturria: Soziolinguistika klusterra



## II.2.1.- Administrazioa – Balorazioa:

### ADIERAZLEAK

#### Hzikuntza eskakizunen egoera (2011)


<b>LANPOSTU FINKOEN KOPURUA: 110</b>		<b>DERRIGORTASUN DATA DUTEN LANPOSTUAK: 101 (110 ken 9: 7 euskara arlokoak –HNT+itzult+5euskara irakasle- eta bi lanpostu derrigortasun bakoak)</b>						
1996KO DERRIGORTASUN INDIZEAREN (%77,27) ARABERAKO DERRIGORTASUN KOPURUA: 85 (beraz, gainditu egin da legez bete behar den kopurua, hamasei gehiago baitira dutenak)								
<b>HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN EGOERA DERRIGORTASUN GUZTIAK KONTUAN HARTUTA (Langile finkoak):</b>								
DERRIG. HE	GUZT	EGIAZTAT.	EZ EGIAZT..	LANPOS. HUTSAK	SALBUET ADINAGA	-1	-2	-3
1.HE	6	6						
2..HE	56	46	5	1		3		
3.HE	34	23	1	4		7		
4.HE	5	3		1	1			
GUZT	101	78 %.77,22	6 %.5,94	6 %.5,94	1 %.0,99	10 %.9,90		

Kontuan hartu perfilen portzentajeak kalkulatzeko lanpostu zerrendatik (110) bederatziz lanpostu kanpo geratzen direla (euskara teknikaria, itzultzailea eta euskara irakasleak -7-, eta perfilek bako 2 lanpostu).

#### Alderaketa (1999tik 2011era bitartekoa)

	Lanpostu finkoak	Derrigortasundun lanpostuak	Egitaztatu dutenak
<b>1999 urtea</b>	79	59 (% 74,68)	29 (% 49,15)
<b>2008 urtea</b>	110	101 (% 91,82)	67 (% 66,33)
<b>2011 urtea</b>	110	101 (% 91,82)	78 (% 77,22)

Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kopurua gora doan heinean baino nabarmenago doa gorantzat esgiaztatutakoen kopurua.



Kontuan hartu behar 2009tik 2011rako jauzia, lanpostu huts asko bete zirelako eta ondorioz egiaztatutakoen heineak gora egin duelako.

Salbuetsita dauden langileen kopurua, normala denez, beherantza joan da adinekoak jubilatuta ahala. Une honetan adinagatik salbuetsita zegoen langile bakarra ere jubilatuta egin da.

Ez egiaztatutakoen kopurua (ezer egiaztatu ez dutenen kasua da berau) gutxika beherantza joan da, jubilazioen erabera. Multzo bat dago ezintasunagatik edo aurrera egin ez duena edo egin nahi izan ez duena. Badaude euren artean normalizaziorako oztopo ez direnak ere eta lana euskaraz betetzen dutenak.

Dagokien baino beheragoko perfila (-1) lortuta dutenen kopurua ere mantendu egin da.

### Gernika-Lumoko udala – lanjardunak eta lanurratsak (bilakaera: 2001-2012)

Urtea	Lanurratsak Euskaraz		Lanurratsak Eleberaz		Lanurratsak gaztelera	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop	%
2001 (aztertutako lanurratsak 767)	120	15,60	23	2,90	624	81,30
2008 (aztertutako lanurratsak 1053)	224	21,27	38	3,66	791	75,12
	Erdarara itzuli				Euskarara itzuli	
	71	6,74			431	40,93
2012 (aztertutako lanurratsak 725)	232	32	106	19,62	387	53,38
	Erdarara itzuli				Euskarara itzuli	
	36	4,96			187	25,79

*Koadroetan jasotzen diren datuak sortze-hizkuntzari buruzkoak dira. Kontuan hartu behar da 88 lanjardun edo espediente mota landu direla 2012ko datu bilketan, aurreko datu bilketetan konprobatu ahal izan diren bikoizketak ekidituz. Guztira 725 lanurrats.*

- Euskarazko lanurratsetan goranzko bidea izan da, 2008tik ona 11 puntuko aldea dagoelako eta 2001koarekin alderatuz bikoiztu egin da.
- Eleberazko lanurratsetan gorakada nabarmenagoa izan da, %3,66tik %19,62ra, baina kontuan hartu behar da sortze-hizkuntza gaztelera dela.
- Gaztelera lanurratsen kopuruak, oster, beherantz egin dun abarmen (2001ean %81,30 eta 2012an %53,38).
- Euskaratik erdarara itzulitakoa gutxitu egin da eta gaztelera euskarara itzulitako ere bai. Zergatia: euskaraz eta eleberaz sortzen dena asko areagotu delako.
- 2012ko datu bilketan erdaratik euskarara itzuli da lanurrats guztien %40,41a (erdaratik euskarara itzulitakoa + eleberazkoa); 2008an %44,53a zen.
- 2012ko datu bilketan erdara hutsez geratu da lanurratsen %27,58a (erdarazko 387 lanurrats – euskaratutako 187); 2008an erdara hutsezkoa lanurratsen %34,18a zen (erdarazko 791 lanurrats – euskaratutako 431).

## Lanurratsen hizkuntza – Barne harremanak eta kanpo harremanak

2001 urtea 765 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (331 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (434 lanurrat)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	59	17,82	6	1,81	266	80,30	61	14,05	17	3,90	356	82,00

2008 urtea 1053 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (472 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (581 lanurrats)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	139	29,45	20	4,24	313	66,31	85	14,63	18	3,10	478	82,27

2012 urtea 725 lanurrats guztira	BARNE HARREMANAK (355 lanurrats)						KANPO HARREMANAK (370 lanurrats)					
	Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz		Euskaraz		Eleberaz		Gazteleraz	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	142	40,00	47	13,23	166	46,76	89	24,05	60	16,21	221	59,73

*Koadroetan jasotzen diren datuak, sortze-hizkuntzari buruzkoak dira*

- **Barne harremanetako euskarazko produkzioaren gorakada ikaragarria izan da** eta hementxe dago euskarazko produkzioaren sorleku nagusia (2001ean %17,82 eta 2012an %40,00). Gaztelerazko produkzioak jaitsiera nabarmena izan du barne harremanetan eta eleberazkoak gorakada dexentea.
- **Kanpo harremanetako lanurratsetan, euskara hutsezko produkzioaren portzentajeak gora egin du 2008-2012 epean, hamar puntu gora.** Azpimarratu behar gaztelerazko produkzioak 23 puntu beherantz egin duela eta eleberazkoak, ostera, 13 puntu gora (%3,90etik %16,21era).
- Tamalez, 2001ean eta 2008an bezala, itzulpen lanaren pentsura gaude 2012an ere, bai barrura begira zein kanpora begira. Nabarmena da baita itzulpen beharrez handiagoa dela kanpora begirako lanurratsetan, erdarazko lanurrats gehiago direlako.

## Itzulpengintza lana – Bilakaeraren balorazioa (2008-2012)

Jarraian dagoen koadroan, udaleko atal bakoitzak urte bakoitzean sortu duen lan bolumenaren berri ematen da (megabytes kopuruak adierazten dira; beraz, erdarazkoa eta euskarazkoa ezin direnez desberdindu, bolumen horretan aintzat hartuta daude itzulitako agiriak osotasunean):

	2008	2009	2010	2011	2012 (irailera artekoa)
Alkatetza	10,2	4,94	2,58	1,12	0,893
B. Teknikoa Brigada.	0	0	0	0	0
Dekretuak	0,953	4,65	6,81	5,86	6,92
Ekonomia	8,92	2,76	1,29	0,284	1,57
Estatistika- Erregistroa	0,842	0,422	0,190	0,950	0,270
Hirigintza	186	117	30	26,9	30,4
Idazkaritza	74,1	71,1	53,6	24,4	10,2
Ingurumena	3,14	20,0	0,850	49	2,01
Kultur Etxea	0	0	0	0	1,31
Kultura	2,83	3,15	8,19	9,76	4,65
Lanbide	0	0	0	0	0
Udaltzaingoa	0	0	2,59	5,66	0,155
Zerbitzu Orokorrak	39,4	26,7	122	14,9	3,93
	<b>326,385</b>	<b>250,722</b>	<b>228,1</b>	<b>138,834</b>	<b>62,308</b>

### Kontuan hartzeak:

- 2012ko datuak irailera artekoak dira.
- **Itzulpenen bolumenak beherantz egin du oro har** (ereduak erabiltzen dira eta itzuli beharrekoa askozaz ere laburragoa da), nahiz eta arlo gehienetako idazkietan itzulpenak nagusi izaten jarraitzen duen.
- Litekeena da, **udalaren lan-bolumen osoa ere jaitsi izatea, krisia bitarteko** eta, ondorioz, horrek itzulpen lana ere murriztea dakar.
- **Urdinez** koloreztatutako lan-sailak dira itzulpenen **bolumenean jaitsiera** nabarmena izan dutenak.
- **Laranja**z daude itzulpenen **bolumenean igoera** izan dutenak.
- **Gorri**z itzulpen lanik ezerez edo apenas eskatzen dutenak.
- **Berde**z Kultur Etxearen kasu berezia (2012an itzulpen txokoan integratua).
- **Kultura** sailari dagokionean, **turismo** bulegoari dagozkio itzulpen lan gehienak.

- **“Dekretuak” deituriko arloa:** Dekretuak sortzeko programa bereziarekin lotuta dago eta itzulpen txokoan horrela egokitu beharra izan zen. Gogoan eduki behar da txoko horretako itzulpenik **gehienak (%78) hirigintza arloari** dagozkiola. Datu zehatzagoak emanda, **bitxia da ikustea atal batzuetan eleberazkoa edo euskarazkoa eurek ekoizten dutela:**
  - 2012ko martxoan 127 dekretu egin ziren.
  - 91 dekretu ataletako langileek moldatu zituzten (korredakzioa edo trebakuntza bitarteko) eta Euskara Zerbitzuak itzulitakoak 36 izan ziren.
  - Itzulitako 36 horietatik, 28 izan ziren Hirigintza/Obrak eta Zerbitzuak ataletakoak).
- **Brigadak egun ez du dokumentu idatzirik sortzen** eta Bulego Teknikoa Hirigintzakoaren baitan sartuta dago.
- **Kultur Etxeko datuak Kulturaren baitakoak izan dira 2011ra arte** eta berezitu egin dira 2012an.
- **Lanbide Ekimenetako daturik ez da jaso**, egiten zaizkien itzulpenak posta elektronikoz gauzatzen direlako (ez daude sarean). Arlo horretako erabileraren gaineko mikroplana egiten hasi ginen, baina bertan behera geratu zen duela bost urte. Dena den, hizkuntza irizpideak kontuan hartu beharko lituzkete sortzen dituzten idatzi guztietan.
- **Azken urteetan areagotu egin da euskaratik gaztelaniarako itzulpen lana** eta, batik bat, Idazkaritzan. Nabarmena da joera hori Plenoetako aktetan.

### **II.2.1.1- Pozteko ondorioak (administrazioa):**

**1.- Gaur egungo egoera hobea da 2012an (euskaraz eta elebietan sortutakoa %51,62) euskararen tratamendu orokorrari dagokionean; 2001ean %18,60 eta 2008an %24,93.**

**2.- Administrazioko II. Erabilera Plana onartu zen 2008an, Gernika-Lumoko II. Plan Estrategikoa onartu zen Osoko Bilkura ber-berean, eta tresna eragingarria bilakatu da Administrazio barruko euskararen erabilpena areagotzeko.**

**3.- Diru laguntzetarako udal ordenantza orokorra moldatu du Udalak 2012an, Euskara Zerbitzuaren ekarpenak txertatuz.** Euskararen babes juridikorako tresnak ere hor kokatzea ezinbesteko jo dugu. Administrazioko Erabilera Planaren ildotik doan gauza bat dugu hau.

**4.- Esparru honen aurrekontua da potoloena (2003an 21.636 €, helburu nagusirako erabilitakoaren %11,78 eta 2012an 220.000 €, aurrekontu osoaren %36,40), hortxe dagoelako aintzat hartuta Euskara Zerbitzuaren giza-baliabideen kontua eta ez dugu ahaztu behar giza-baliabide horiek direla gainerako esparruetako dinamizazioa eta kudeaketa burutzen dutenak.**

**5.- Erabilera plan berrirako geure aplikazio informatiko berezia erabili ahal izan dugu, udaleko informatika zerbitzuari eskerrak, nahiz eta HPSren IRATI aplikazioa erabili behar izan datu-bilketak bertan txertatzeko.**

**6.- Hizkuntza eskaizunei dagokienean, betetze mailak bilakaera positiboa izan du.** 1999an 59 derigortasundunak eta 29 egiaztatuak (%49,15); 2012an 101 derrigortasundunak eta 78 egiaztatuak (%77,22). Joera hori areagotu egin da nabarmen hutsik egon diren lanpostuak (13) perfildun langileek bete dituztenean.

**7.- Euskaraz sortutakoa dela-eta izandako igoera, barne harremanetan gertatu da batik bat.**

**8.- Eleberazko produkzioak izugarri egin du gora, bai barne harremanetan zein kanpo harremanetan.**

**9.- Erdarazko produkzioak ere behera egin du barruko zein kanpoko lanurratsetan.** Egia da baita, erdarazkoaren jaitsiera gehiago nabarmendu dela barruko harremanetan.

**10.- Itzulpengintza lanaren bolumena asko murriztu da.** Arrazoiak: udal saila batzuetan lan gutxiago dagoelako (Hirigintza), beste batzuetan euskaraz gehiago sortzen delako (Estatistika, Ekonomia, Udaltzaingoa). Bestalde, aipagarria hauxe ere: erdaratik euskarara askoz gehiago itzultzen da (nabarmena da hori Osoko Bilkuretako aktetan).

### **II.2.1.2.- Kezkatzeko ondorioak (administrazioa)**

- 1.- Euskarazko produkzioa txikia da**, eta gaztelaniaz sortzen dena euskarara itzultzen da (produkzioaren % 40,41). Gaztelaniatik euskararako itzulpengintzaren morrontzapean jarraitzen dugu eta egiten den apostua hori bada, normalizaziorako kaltegarria da oso, euskara ere lan hizkuntza bilaka dadin oztopo.
- 2.- Administrazioko erabilera plana aurrera ateratzea, politikarien pentsura egon da** neurri handi batean eta ez litzateke horrela izan behar, maila subjektiboak baldintzapean egiten duelako eta plana, bera, gauza objektiboa dela deritzogu.
- 3.- Administrazioko Erabilera Planaren sustapenaz ardura izan Talde Eragileak ez du iraunkortasunik izan**, nahi eta 2012an bideratua izan.
- 4.- Ezin izan da Administrazio barrurako Euskara Batzorde bat eratu**, nahiz eta horretarako Tokiko Gobernu Batzarrak konpromiso politikoa 2007an onartuta eduki. Gaur egun, funtzio hori Talde Eragileak bete beharko lukeelakoan gaude.
- 5.- Udal administrazioaren kontratazioetarako Erabilera planak irizpideak** finkatzen izan ditu, modu orokorrean egia esan, baina Euskara Zerbitzuari ez zaio aukerarik eman irizpideok betetzen izan diren kontrolatzeko, ez maila politikotik ez eta teknikarien aldetik.
- 6.- Udal administrazioak kanpo harremanetarako sortutakoan dago akatsik handiena**, euskarazko produkzioa erdira jaisten delako kanporako harremanetan eta erdarazko produkzioa heren bat gehiago da kanporakoan.
- 7.- Aurreko Erabilera Planaren ondotik azpi-erakunde baten mikroplana** eratzeari ekin zitzaion (Musika Eskola), **baina badira beste zenbait erakunde (Lanbide ekimenak, Kultur Etxea, Kiroldegia) beharrezko luketenak eta epealdi honetan eratu ezin izan direnak** (Euskara Zerbitzuko giza baliabide murrizketa...).



## II.2.2.- Enpresa mundua – Balorazioa:

### ADIERAZLEAK

#### Hitzarmengintza kanpaina (kopuruak)

Urtea	Denda kop	Enpresa kop	Elkarte kop	guztira
1993	58	-	-	58
1994	93	-	-	93
1996	74	-	-	74
1997	68	-	-	68
2000	80	-	-	80
2001	84	7	-	91
2002	79	9	-	88
2003	98	11	-	109
2004	100	22	37	159
2005	108	25	49	182
2006	117	30	51	198
2007	126	33	57	216
2008	113	34	57	204
2009	127	47	57	231
2010	131	49	57	237
2011	137	48	58	243

#### Kanpainako diru eta giza baliabideen bilakaera

Urtea	Diru kop	arloak	Giza-baliabideak
1993	4.000 €	Merkataritza	- Artez (Tekn. + monitorea) - Udaleko Eusk. Teknikaria HNT1
1998	5.000 €	“	“ “
2001	12.000 €	Merka + enpresa	“ “
2004	35.600 €	Merka+enpr+elkart	“ “
2006	45.000 €	“ “ “	- Artez (Tekn. + monitorea) - Udaleko Eusk. Teknikaria HNT1 - Udaleko euskara dinamizatz.
2008	59.000 €	“ “ “	“ “
2009	70.862 €	“ “ “	“ “
2010	70.031 €	“ “ “	“ “
2011	69.970 €	“ “ “	“ “

- Datu hauetan, 2004tik aurrera elkarteena ere agertzen da, kanpaina berean hiru atal daudelako (merkataritza, enpresak, elkarteak). Atal bakoitzak tratamendu berezia du, baina ez dago bereiztuta diru baliabideen kontua zenbat den atal bakoitzerako. Nabaria da 2001 (enpresak) eta 2004 (elkarteak) urteetako urratsa, hitzarmen-kide kopuruak gora egin zuelako atal berriak hartzearen.
- Giza baliabideen zutabearen, berdez azpimarratuta dago Euskara Dinamizatzailaren kontratazioari dagokion urtea, hitzarmengintza dinamizatzeko helburuarekin kontratatua. Horixe da hitzarmengintza kanpainaren historian izan den jauzi kualitatibo eta kuantitatiborik (aurrekontuari dagokionean...) handiena.

## Merkataritza eta enpresetan euskararen erabileraren bilakaera (hitzarmenkodeena)

Atala	Neurketak egindako urteetako erabileraren portzentajeak							
	1993 urtea Dendak 58	2001 urtea Dendak 84 eta enpresak 7	2004 urtea Dendak 100 eta enpresak 22	2006 urtea Dendak 117 eta enpresak 30	2007 urtea Dendak 126 eta enpresak 33	2008 urtea Dendak 120 eta enpresak 36	2010 urtea Dendak 131 eta enpresak 50	2011 urtea Dendak 137 eta enpresak 48
Merkataritza	%38,35	%71	%53,99	%66,23	%67,50	%67,40	%64,05	%66,92
Enpresak	--			%49,88	%57,39	%58,69	%56,10	%55,76

Kontuan hartu behar da erabileraren datuak hitzarmenkodeei doazkiela eta erabileraren portzentajea aldatuz doala kide kopurua aldatzen den neurrian. Kide berriak kanpainan sartzeak, erabileraren portzentajea jaisteak dakar.

## 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera Gernika-Lumon (2001-2006)

	Guztira	Nekazaritza eta arrantza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak (merk/ostal/zerbitzuak...)
2001 urtea	6.065	116 (%1,91)	1.955 (%32,23)	415 (%6,84)	3.579 (%59,01)
2006 urtea	6.832	74 (%1,08)	2.185 (%31,98)	535 (%7,83)	4.038 (%59,10)

## Beste adierazle batzuk

	2005	2006	2007	2008	2010	2011
Dendak + enpresak hitzarmenkide (portzentajea)			%11,36	%11,14	%12,92	%14,46
Erabilera plana duten enpresa kopurua	1	2	3	4	7	7
Euskara hutsean + eleberaz aurkeztutako fakturak udaletxean	-	-	%20	-	-	%34,72 %20 eusk / %14,72 eleb.
Egindako aldaketak + errotuluak + itzulpenak (merkataritzan)	-	-		156	401	677
Egindako aldaketak + errotuluak + itzulpenak (enpresetan)				67	92	40
Eskainitako euskarri informatikoak (enpresak + merkat)	3	3	3	3	3	3
Lan poltsetan dendarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	11	-	-
Lan poltsetan tabernarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	9	-	-

### **II.2.2.1.- Pozteko ondorioak (enpresa mundua):**

- 1.-** 1993az geroztiko **merkataritza kanpaina Plan Estrategiko bietan (2003-2008 eta 2009-2012) txertatzea oso erraza izan da** eta esperientzia estimagarria honako esparrua garatzeko orduan (merkataritza kanpainaren dinamika baliatu dugu enpresen eta elkarten atalak abian jarri eta moldatzeko).
- 2.- 2002tik 2011ra bitartean eten barik goranzko bide izan du hitzarmen-kide kopuruak**, bai merkataritzan zein enpresetan.
- 3.- 2008-2012 epealdiko Plan Estrategikoa garatu ahala bikoiztu egin da esparru honetan erabili den aurrekontua** 2008koarekin alderatuta (2003an 15.025 €, helburu nagusirako erabilitakoaren %5,84; 2008an 31.500 €, guztiaren %4,81; 2012an 65.000 €, guztiaren %10,75). Komunikabideen esparruaren atzetik, lan-munduarena izan da gehien potolotu den aurrekontua. Are gehiago, 2012ko aurrekontuan izan diren murrizketek ez dute ukitu esparru hau.
- 4.- Esparru honetako betetze-maila ia ehunetik ehunekoa izan da** (aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu ahal izan dira neurri batean edo bestean).
- 5.- Enpresa munduan emaitza oso onak lortu dira eta merkataritzan baino azkarrago.** 2001-2008 epealdian izandako dinamikari eutsi zaio eta sendotu egin da; 2001ean 7 enpresa, 2008an 34 eta 2011n 48. Erabileran ere 2006tik 2011ra bitartean enpresa-hitzarmen-kideek gora egin dute 6 puntu (2006an %49,88 eta 2011n %55,76), kontuan harturik gainera enpresa hitzarmen-kideen kopurua urte gutxitan zazpikoiztu egin dela eta urtetik urtera sartzen diren enpresa berriek erabileraren portzentajea jaitsi egiten dutela.
- 6.- Merkataritzan asko areagotu da aldageta, itzulpen eta material eskaera kopurua azken hiru urteetan** (2008an 156 eta 2011n 677). Enpresen atalean, oster, itzulpen/material eskaerak gutxitu egin dira, indar gehiago ematen zaiolako barruko erabilerari eta euskara planak edo mikroplanak finkatzerakoan langileria-aren prestakuntzari.
- 7.- Poztekoa da HPS-k eta BFA-k enpresetako euskara planak garatzeko azken urteetan indarrean jarritako diru laguntza bidea**, LANHITZ programaren magalean, udalaren ekimenaren osagarri modura planteaturik (udalak helburu berberekin ematen dituen diru laguntzak, HPS-k eta BFA-k emandakoan araberaren esleitzen dira).
- 8.- 2011n zazpi enpresa izan dira Erabileraren Plana onartu eta garatzeari ekiten diotenak**, jarraipenerako Talde Eragile eta guztiz. Euren artean hitzarmen-kide ditugun garrantzitsuenak. Gainerako enpresetan (41) mikroplanak dira, diagnostikoaren araberaren finkatuak.
- 9.- Udaletxean sarrera izan duten euskarazko fakturen kopurua ia bikoiztu egin da** (euskaraz + eleberazko fakturak 2011ean %20 eta 2011n %34,72).

### **II.2.2.2.- Kezkatzeko ondorioak (enpresa mundua)**

**1.- Merkataritzako erabilera (hitzarmen-kideena) bere horretan dago azken sei urteetan (%66/%67)**, nahiz eta enpresetako erabilera (%55,76) baino 11 puntu gehiagokoa izan. Agian, kale erabileraren ondorioa (2011ko kale neurketan %52koa zen erabilera portzentajea) izan daiteke eta berau ere egonkor dagoen bitartean, merkataritzakoa ere geldirik dago.

**2.- Adierazleetan ikusten denez, kopuru osotik portzentaje txikia da hitzamenkide ditugunak (%14,46)** nahiz eta eredugarri edo garrantzirik gehien dutenak kanpainan izan. Hutsunerik handiena ostalaritzan eta profesionalen munduan daukagu.

**3.- Esparru honetan azpikontrataturik daude zerbitzu asko**, kudeaketa eta aholkularitza enpresen eskuetan uzten direnak (nominak, gizarte segurantzak, erakunde publikoekiko harremanak, aholkularitza juridikoa) eta horien artean batzuk kanpainan sartuta dauden arren, hutsune bat daukagu, indartsuena ezin izan dugulako orain arte kanpainara erakarri.

**4.- Udalerri gaitzeko erakundeetan ezin eragin izana edo eragiteko arazoak** (Merkatal ganbarak, enpresari elkarteak eta federakuntzak, enpresari matrizekoaren menpe daudenak –aseguru etxeak, banketxeak, frankiziak-).

**5.- Lan-munduan eragiteko udal eta goi erakundeen arteko koordinazioa landu behar dago.** HPS-ren LANHITZ egitasmoa eta udal erakundeetan abian ditugun egitasmoen arteko uztarketa argia behar du litzateke, giza eta diru baliabideei etekin osoa ateratzeko.

**6.- Udalerri mailako merkatariekin elkarlana areagotu behar du litzateke.** Nahiz eta puntualki harremanak izan diren (merkatariei klaseak eskaini,...), kanpaina bereziak bideratzeko estuago jokatu behar du udalak eta merkatariekin elkarrekin.

**7.- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua indargabetu egin zuen Jaurlaritzak.** Horixe dugu oinordeko handiena kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen izenean merkataritzan, ostalaritzan eta enpresen munduan eragin ahal izateko eta gutxieneko jokabide batzuk lege zuzentzeko. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzea, merkatariekin eta enpresarekin borondatearen kontua da gaur egun, zoritxarrez.

## II.2.3.- Aisia – Balorazioa:

### ADIERAZLEAK

I. 2008ko diagnostikoan esaten genuen aisiaren kontzeptu zabalago bati eutsi behar geniola, kultura, ongizate eta gaztedi arloko elkarteak honekin lotuz; kirol esparrukoak ere aintzat hartu ditugu konparaketa egiteko). Jarraiko datuak, hitzarmen-kide diren elkartei dagozkie:

#### Hitzarmen-kide diren ELKARTE GUZTIEN guztien erabileraren bilakaera (kultura, kirola, gaztedia, ongizatea)

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea	2010 urtea	2012 urtea
Ezagutza	%80	%82	%85	%85	--	--	%82,33
Erabilera	%52,04	%62,58	%64,12	%65,15	%63,50	%64,05	%68,82 Barru %44,66 / Kanpo %65,00

#### KULTUR/gazte elkarten ezagutza eta erabileraren bilakaera (2006 eta 2007ko estimazioa)

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2012 urtea
Ezagutza	%86	%88	%88	%91
Erabilera	% 56,50	% 72,76	% 73,98	% 87,69 Barru %66 / Kanpo %91

#### ONGIZATE elkarten ezagutza eta erabilera

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2012 urtea
Ezagutza	---	---	---	%84
Erabilera	---	---	---	% 55,73 Barru %26 / Kanpo %47

#### KIROL elkarten ezagutza eta erabileraren bilakaera

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2012 urtea
Ezagutza	%78	%80	%80	%79
Erabilera	% 44	% 56,50	% 57,50	%63,05 Barru %42 / Kanpo %57

Beste adierazle batzuk	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2009 urtea	2011 urtea
<b>Kultur</b> elkarteak guztira / <b>Hitzarmen</b> kideak	32 / 18 %56,25	33 / 25 %75,75	34 / 26 %76,47	36 / 28 %77,77	34 / 26 %76,47	40 / 29 %72,50
<b>Gazte</b> elkarteak guztira / <b>Hitzarmen</b> kideak	4 / 4 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100
<b>Ongizate</b> elkarteak guztira / <b>Hitzarmen</b> kideak	14 / 4 %28,57	15 / 6 %40,00	15 / 7 %46,66	15 / 9 %60,00	15 / 9 %60,00	15 / 9 %60,00
<b>Itzulitako testuak:</b> laburrak + luzeak ( <b>elkarte guztiak</b> )	-	53	49	40	62	57
<b>Kultur ikuskizunak guztira / ikusleak guztira</b>	-	39 / 7875	59 / 8238	53 / 8689	---	75 / 14.820
<b>Ikuskizunak: euskarazkoak / euskarazkoetako ikusleak</b>	-	16 / 3490 %41 / %44,32	26 / 3118 %44 / %37,90	26 / 2671 %50 / %30,74	---	35 / 8.476 %47 / %57,19
<b>Jaietako ekitaldiak: guztira / euskaraz</b>	-	-	-	120 / 110 %91	100 / 90 %90	

Gazteei begirako aisialdiko programak eta ekintzak	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009	2010	2011
Gazte elkarteak: kopurua / hitzarmen	5/5	5/5	5/5	5/5	5/5	4/4	4/4	4/4
Kale hezitzaileekin GAZTERREN egitasmoa lantzen duten gazteen kopurua	---	---	40	45 16 etork.	45 16 etork.	38 18 etork.	30 15 etork.	24 11 etork.
Asteburu	100	100	100	150	150	158	166	210
Udako kaleko kanpamenduak (Udan zer egin + URE): 8-12 urteko partaideen kopurua batz best	80	80	80	100	100	80/100	80/100	80/100
Udako kaleko kanpamenduak (Udan zer egin + URE): 8-12 urteko partaideen kopurua batz best	---	---	---	200	200	205	209	244
Euskaldunen lan-poltsetan begiralerako izenak eman dutenak			56	---	56+14	---	---	---

### **II.2.3.1.- Pozteko ondorioak (aisia):**

**1.- Esparruko betetze maila %100koa izan da**, esparruan diharduten eragile nagusien inplikazioagatik (Gaztelekua, Informazio bulegoa, gazte elkarteak –lau daude eta guztiak euskara hutsean dihardute-).

**2.- Esparruan erabilitako aurrekontua laukoiztu egin zen 2003tik (22.838 €) 2008ra (88.500 €) bitartean eta hurrengo urteetan mantendu egin da kopurua gutxi gora-behera.** Aurrekontu osoarekiko portzentajeak gora egin du (2003an %8,89 eta 2012an %14,89), zeren aurrekontu orokorra murriztu arren, aisiaren esparruari lehentasun eman eta partidak mantendu egin dira.

**3.- 2003ko Plan Estrategikoa eratzeko egin zen diagnostikoan, Gazte Elkarten esparrua normalizatuenetako bat zela atera zitzaigun** eta horri eusteko ahalegina egin da hurrengo Plan Estrategikoan ere. Elkarteekin harrremanak euskara hutsean izatea finkatu zen bere sasoiari eta, 2000 urtea geroztik, egitasmo bereziak garatzeko hitzarmenak sustatu zituen Euskara Zerbitzuak (Gaztelekuko zapatuak, asteburuetakoa aisialdia, udan zer egin kanpaina, gabonetako jolas-parkea). Gazte Arloaren eskuetan daude gaur egun.

**4.- 2008ra arte gazteen aisiaren esparrua Euskara Teknikaria I-aren ardurapean zegoelako (hitzarmenak, diru laguntzak, jolas-parkeak, e.a.) lan zama astundu egiten bazitzaion ere, hizkuntza irizpide zehatzak finkatu ziren eta dinamika horri eutsi zaio.** Hori horrela, Euskara Zerbitzua eta Gaztedi Arloaren arteko harremana oso estua eta emankorra da.

**5.- 8-12 urte bitarteko gaztetxoei begirako ekintzetan parte hartzea areagotu egin da 2008tik ona** (begira asteburuetakoa eta zapatuetako programetako partaide kopuruak); 13-16 urte bitartekoei eskaintzen zaien “Gaztelekuko zapatuak” programako partehartzaileen kopurua mantentzea ere garrantzitsua da.

**6.- 18-25 urte bitarteko gazteei begirako aisiaren egoera poztekoa da Astra proiektuaren norabidea ikusita.** Lehenengo urratsetatik euskara hutsean garatu den proiektua izan da eta gazteen artean sortu den dinamika euskaraz funtzionatzekoa da. 2012an Astra eraikina prest dago proiektua islatzeko/gauzatzeko eta oinarri finkoak daude pentsatzeko euskararen erabilerarako arnasgunea izango dela. Aipatzekoa da puntu honetan, euskararen kale erabileraren 2011ko neurketan gazteen arteko erabilerak ere pixka bat gora egitea (urteetan etenik barik gorantz).

**7.- Elkartei (kultura, gaztedia, ongizatea eta kirol arloko elkartei) zuzendutako hitzarmengintza egitasmoa oso eraginkorra suertatu da;** hitzarmenakide ditugun elkarteetan euskararen erabileraren bilakaera oso positiboa dugu (2001ean %52,04 eta 2012n %68,82).

**8.- Kultur/gazte elkarten erabilerak 13 puntu egin du gora azken 5 urteetan** (2007an %74 eta 2012an %87,69). Kirol elkarteena baino askoz altuagoa bada ere, kirol elkarten erabileraren gorakada ere azpimarratu behar da (2007an %57,50 eta 2012an 63,05); horixe zen gure kezkarik nagusia, kontuan hartuta kirolak haur eta gazteengan duen eraginaz eta familia giroan baita, gurasoen inplikazioa bitarteko. Poztekoa da bai kultur elkarten zein kirol elkarten esparruetako erabileraren kale erabileraren (%52) gainetik dagoela.

**9.- Euskarazko ikuskizunetako ikusleen portzentajeak (eta kopuruak) asko egin du gora** (2005ean %44,32; 2007an %30,74; 2011n %57,19), nahiz eta kultur ikuskizunetako euskarazko eskaintza portzentajetan hortxe mantendu (%50ean gutxi gora-behera). Ahalegin berezia egin da helduentzat euskarazko ikuskizunen eskaintza areagotzeko (guztira 35 euskarazkoak; 13 hurrei zuzenduak eta 22 helduei).

**10.- Eliza dugu gune euskaldunenetako bat (aztertu 82. orrialdeko koadroak);** Elizbarrutia bera, Karitas eta aisialdiako Parrokiako Kosnoaga elkarteak hitzarmenak ditugu. Beraz, normalizazioari begirako lana betetzea ez da diru kontua erlijioaren esparruan, hizkuntza irizpideak bere jardueran aintzat hartzen direlako.

### **II.2.3.2.- Kezkatzeko ondorioak (aisia)**

**1.- Bigarren plan estrategikorako (2009-2012) aisiaren esparrua modu orokorragoan planteatu nahi genuen, baina %100ean ezin.** Plan Estrategikoan aintzat hartu beharreko esparruetan banaketa egin izan da beti kultura eta aisiaren artean; beraz, guk elkarteei begirako “hitzarmengintza” nonbait kokatu behar eta “aisia”-rekin lotu dugu, nahiz eta kultur edo ongizate arloko elkarteak izan. Irizpide berberari jarraituz, helduen aisia, kultura bidezko aisia barru, “aisiaren esparrura” ekarri dugu eta kultur gintzan kultur ekoizpena kokatu dugu batik bat.

**2.- Gaztediaren arloan eragiteko Gazte Plana ezinbesteko tresna izanda, ez da erabilia izan jarraipena egiteko.** Horren inguruan bilguneak eta koordinazio guneak izan ezean, Euskara arloaren eraginkortasuna asko mugatzen da eta zeharbidetik jo beharra daukagu (elkarteak,...). Horrekin lotuta, 2008an aipatzen izan genuen Gaztedirako giza baliabide eskasia eta gaur egun berdin jarraitzen dugu; Suspergintza enpresaren bitartez kontraturiko lanaldi erdirako dinamizatzailerearen esperientzia, 2011n eten egin zen.

**3.- Beste ahulezia bat: helduen aisia eratu eta sistematizatzeko koordinazio bilgune baten falta.** Horretarako, Kultur Etxearen ardurapean Kultura Plana eratu beharra legoke, helduen aisia egituratzeko. Diagnostikotzat eman daitekeena burutu zen Elhuyar enpresarekin, baina ez daukagu Kultur Planaren berririk.

**4.- Helduei Kultur Etxetik bideratzen zaien aisiaren datuei buruz lausoa daukagu, diagnostiko falta** (Kultur Etxearen bitartez bideratzen diren tailerrak, ikastaroak, partaide kopuruak,...).

**5.- Hitzarmenak diren elkarte guztien erabilera orokorraren bilakaera positiboa bada ere (2012an %68,82), gizarte ongizate arloko elkarten erabilera bereiztu eta askoz baxuagoa da** (2012an %55,73; barrukoa %26 baino ez eta kanpokoa %47).



**6.- Haurren ikuskizunetara ikusle gutxi doaz** (2011n guztira 35 ikuskizun euskarazkoak; 13 haurrei zuzenduak eta 22 helduei; haurretan 1675 ikusle eta helduetan 6.797 ikusle). Aisialdirako, antza (kopuruek hori diote), haurrek eta gaztetxoek kirol esparrura jotzen dute.

**7.- Begibistakoa da eliza katolikoak gizartean duen eragina ahulduz doala** eta belaunaldi berrien begietara are gehiago. Hori horrela izan arren, elizaren esparrua dugu (ikus 82. orrialdeko koadroak) gunerik euskaldunenetako bat.

**8.- Eliza ortodoxoak bere jardunerako Lorategietako eliza hartu du iralean** eta erreferente garrantzitsu bilaka daiteke etorri berri helduengana jotzeko.

**9.- Belaunaldi berriek joera gehiago dute “giza baloreena” GKE/ONG delakoetatik jorratzeko** eta, ditugun datuen arabera, ongizate arloko elkarteak dira euskararen erabilera ahulena daukatenak.

## II.2.4.- Kirola - Balorazioa

### ADIERAZLEAK

#### Kirol elkarteen ezagutza eta erabileraren bilakaera (hitzarmenakideak)

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2012 urtea
<b>Kirol elk. / Hitzarmenakideak / Hitzarm. %</b>	----	20 / 14 / %70	20 / 15 / %75	32 / 17 / %53
<b>Ezagutza</b>	%78	%80	%80	%79
<b>Erabilera orokorra</b>	%44	%56,50	%57,50	%63,05
<b>Barrurako erabilera</b>	---	---	---	%42
<b>Kanporako erabilera</b>	---	---	---	%57

Azken bolada honetan, kirol mota bereziko elkarteak sortu dira, kirolkide gutxiak; horrek, desoreka sortu du hitzarmenakide direnen portzentajearen. Nahiz eta elkarterik garrantzitsuenak hitzarmenakide izan, buelta bat eman beharko zaio hitzarmenakide berriak egiteari kirol esparruan.

2007an hitzarmenakide ziren kirol elkarteen erabilera orokorra %57,70a bazen, 2012an gora egin du 5 puntu (%63,05), ezagutza mantendu den arren (%80/%79) eta, aipagarria, erabilera horrek kaleko erabilera (%52) aise gainditzen du.

Baina, barruko eta kanpoko harremanetarako erabilerak alderatuz, desoreka itzela agertzen zaigu: kanporako erabilera %57 eta barrurakoa %42, askoz baxuagoa. 2004-2006 urteetan zehar entrenatzaile eta kirolarien arteko hizkuntza ohituretan sumatzen genuen hutsunea kontuan hartuta, kirol arloan bereziki eragiteko kanpaina abian jartzea erabaki zen; 2007ko azken hiruhilekoan eta 2008an garatu zen. Hortik aurrera, ahalegina egin da dinamika hori mantentzeko.

#### Hurrengo koadroetan, 2008ko azterlaneko datuak islatzen dira (orduko datu bilketa ezin izan da errepikatu):

##### Urte osoko ikastaroen hizkuntza (2007/2008)

Ikastaroen hizkuntza	2007/2008		
	urte osoan	neguko ikastaroak	udako ikastaroak
Gaztelaniaz	23 (%16)	18 (%22)	5 (%8)
Ele bietan (*)	56 (%38)	15 (%18)	41 (%63)
Euskeraz	68 (%46)	49 (%60)	19 (%29)
Guztira	147	82	65

(\*) Ele bietan: Oro har agindu orokorrak euskaraz. Gaztelaniaz galdetzen zuenari gaztelaniaz erantzuten zitzaion eta azalpen zehatza eman behar bazitzaion, gaztelaniaz. Halandabe, bazeuden ikastaro batzuk, gutxi baziren ere, gehiena gaztelaniaz ematen zirenak begiralearen euskara maila zela eta.

### Begiraleen jatorria eta euskara gaitasuna 2008

Elkartea edo erakundea	begirale kopurua	euskaldunak
Arku Jaurtiketa	1	%100
Arkupe Pilota taldea	1	%100
Gernika FS	1	%100
Gernika Saskibaloia alkartea	1	%100
Gernika Sub Urpekaritza alkartea	3	%33
Judo-Karate alkartea	3	%100
Kosnoaga Igeriketa alkartea	3	%100
Lumo Kirol eskola	1	%100
Ogoñope Surf alkartea	1	%100
Udalaren Kirol Patronatua	5	%100
Xixili alkartea	10	%70

### Hizkuntza erabilera elkarteka 2008

Elkartea edo erakundea	gaztelaniaz	ele bietan	euskaraz
Arku Jaurtiketa	%0	%0	%100
Arkupe Pilota taldea	%0	%0	%100
Gernika FS	%0	%0	%100
Gernika Saskibaloia alkartea	%0	%0	%100
Gernika Sub Urpekaritza alkartea	%33	%0	%66
Judo-Karate alkartea	%0	%25	%75
Kosnoaga Igeriketa alkartea	%0	%0	%100
Lumo Kirol eskola	%0	%0	%100
Ogoñope Surf alkartea	%0	%0	%100
Udalaren Kirol Patronatua	%0	%0	%100
Rugby eskola	%0	%0	%100
Xixili alkartea	%37	%54	%9

- Euskara gaitasunari dagokionean, Urpekaritza elkarteko eta Xixili elkarteko begiraleengan zegoen hutsunea 2008an, nahiz eta datu orokorra ezin hobe izan (30 begiraleetik 4 ziren erdaldunak eta, horietatik, 3 Xixili elkartekoak eta 1 urpekaritzakoa).
- Elkartekako erabilerrari bagazozkio, begiraleen gaitasunaren ondorio genituen datuak eta aipatu bi elkarteetan (Urpekaritza eta Xixili elkarteak) zegoen datu kezagarria; kirolariak gehienak gaztetxoak eta euskaldunak izan arren, euskara gaitasun bako begiraleen pentsura zeuden.

## Ikastaro kopurua elkarteka 2008

Elkartea edo erakundea	Ikastaro kopurua
Arku Jaurtiketa	1
Arkupe Pilota taldea	3
Gernika FS	3
Gernika Saskibaloia alkartea	5
Gernika Sub Urpekaritza alkartea	4
Judo-Karate alkartea	4
Kosnoaga Igeriketa alkartea	1
Lumo Kirol eskola	4
Ogoñope Surf alkartea	1
Udalaren Kirol Patronatua	60
Rubgy eskola	2
Xixili alkartea	59

Urtean zehar ikastaro kopuru gehien ematen zuena Kirol Patronatua bera zen 2008an, baina elkarte batek, Xixili Elkarteak, ikastaro guztien (147) % 40a (59) berak eskaintzen zuen eta horietan gaztelania zen nagusi. Kezkagarria zen jakitea honako datua ez zela ikastaroetan parte hartzen zutenen hizkuntza aukeraren ondorioa, baizik eta Xixili elkarteko begiraleen gaitasun faltarena.

Beste adierazle batzuk	2005	2006	2007	2008	2011
Lan poltsetarako izena eman duten kirol begirale euskaldunak	-	22	-	22+9	-
Kirol elkarteak guztira / Hitzarmenakideak / <b>hitzarmenakideen %</b>	18 / 13 / <b>%72,22</b>	20 / 14 / <b>%70</b>	20 / 15 / <b>%75</b>	-	32 / 17 / <b>%53</b>
Sortutako hiztegi kopurua	8	-	-	-	-
Udako ikastaroetako <b>taldeak</b> euskaraz-eleberaz / gaztelaniaz	-	70/12	71/5	-	-
Udako ikastaroetan <b>partaideak</b> euskaraz-eleberaz / gaztelaniaz	-	-	750 / 80	-	-
<b>Ikasturteko</b> ikastaroetako <b>taldeak</b> eusk-eleb / gaztelaniaz	-	100/11	111/9	-	-
<b>Ikasturteko</b> ikastaroetan <b>partaideak</b> eusk-eleberaz / erderaz	-	-	700 / 50	-	-

### **II.2.4.1.- Pozteko ondorioak (kirola):**

**1.- Izan dugun lanik gogokoena Kirol Patronatuarekin elkarlan emankorrari eustea izan da**, honek nahiko finkatuta dituelako hizkuntza irizpideak, bai barrurako (administrazio lanak, kontratazioak) zein kanporako (elkarteekiko harremanak, bazkideei arreta, herritarrekiko eskaintza). Hargatik, esparru honetarako erabilitako aurrekontua ez da aipagarria, kudeaketa izan delako lan nagusia kasu honetan. Betetze maila, ia %100koa izan da, planteatutako ekintza guztiak garatu ahal izan dira eta.

**2.- Hitzarmengintza kanpainan kirol talde garrantzitsu eta indartsuenak ditugu sinatzaile** (Gernika Futbol Elkartea, Racing Elkartea, Gernika Rugby Taldea, Gernika Saski-Baloi elkarte, Arkupe Pilota Taldea, Goi-zale elkarte).

**3.- Kirol elkarteetako kideen ezagutza mantendu den arren, erabilera orokorrak gora egin du asko** (2001ean %44 eta 2012an %63,05), kaleko erabilera orokorraren (%52) gaineratik.

**4.- Kirol arloan kanpainak abian jartzeko bideak erraztuta daude**, Kirol Patronatuak bilgunea daukalako kirol elkarteekin zerbait eratu behar denerako eta sarritan antolatzen dituelako kirol elkarteekin elkarlanean hainbat gauza.

**5.- Kirol Patronatutik egiten den eskaintza udalerraren egoera soziolinguistikoaren ildotik doa** eta, ondorioz, normalizazioaren bideari darraio, euskararen erabilerari lehentasuna emanez (eredua: ikastaroen eta prezioen publizitaterako euskarria euskara hutsean dago eta atzealdean **hiztegi txiki bat darama ulermen arazoak dituenarentzat**).

**6.- Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu du Futbol Federazioarekin eta Itzarri enpresarekin.** Horren atzean, Alkarbideko D ereduko lan-mahaiaren akuilua egon da, lau urteko lana. Horren fruituak: begiralerako ikastaroa (25 ordu) eta entrenatzailerako ikastaro homologatua (400 ordu) eratu dira, dagozkien manualak prestatuz, eta datorren ikasturtean (2013-2014) Busturialdean ere hedatuko da eskaintza. Itzarriko Koikiligaz burutu dugu batzar bat oraintsu eta oinarriak finkatu dira datorren urterako. Hurrengo urtean “saski-baloian” ere dinamika bera sortzeko asmoa dago, Aldundiko Kirol Zuzendaritza eta Euskara Zuzendaritza bitarteko.

#### **II.2.4.2.- Kezkatzeko ondorioak (kirola):**

**1.- Kirol arloko goi erakundeetara jotzeko ahalmenik ez daukagu udal mailan** eta udalerrri mailako kirol elkarte askok goi erakunde horien araberako funtzionamendua dute (idatzi ereduak, batzarrak, ikastaroak, ...). Ahalegin berezia egiten ari gara Euskara Zerbitzuen Koordinakundetik, Alkarbideko D ereduko lan-mahaiaren bitartez federazioetan eragiteko Aldundiarekin elkarlanean.

**2.- Administrazioaren goi erakundeek ez dute betetzearazten Euskal Federazioen legea** (urtarrilaren 31ko 16/2006 Legea) eta Federazioei diru laguntzak eta baliabideak eskaintzerakoan hizkuntza irizpide zorrotzagoak erabili beharko lituzteke. Aipatu legeak, XIII. Tituluan, federazioen hizkuntza normalizaziorako aginduak ematen ditu eta lege-hauspenaren kasurako zigorrak ere ezartzen ditu. Hori guztia ez da aplikatzen.

**3.- Udalerrri mailako kirol elkarteen barrurako erabilera baxua da (%42)**, ezagutzarekin (%79) eta kanpo erabilerarekin (%57) alderatuta. Halandaze, gehiago ekin behar diogu kirol elkarteen jardunean, hitzarmengintza kanpaina bitarteko. Esan behar da, kirol elkarteen erabilera urrun dagoela kultur elkarteen erabileratik (erabilera orokorra %87,69, kanpoko erabilera %91, barruko erabilera %66).

**4.- Udalerriz kanpoko jatorria duten elkarteak sartzen dira jokoan kasu batzuetan**, kirol mota berezi bateko ikastaroak emateko orduan, esatetako. Euren zerbitzuak ezinbestekoak diren kasurako zorrotzago jokatu beharko litzateke; begiraleen gaitasun falta saihesteko laguntza eman eta hizkuntza irizpide egokiak finkatzeko baliabideak eskaini.

## **II.3.- Hirugarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ELIKADURA**

### **Plan Estrategikoa onartu orduko emandako urratsak (1987-2002):**

- **1987 urtea: Berritzegunearekin elkarlanean** argitalpenak prestatzeari ekin zitzaion eta batzuk corpusarekin lotuta.
- **1991 urtea: Euskararen erabilpenerako Udal Ordenantza** onartu zen eta bertan finkatu ziren diru laguntzak emateko eta lagundutako ekitaldi publikoetarako hizkuntza irizpideak.
- **Betidanik jokatu da estu-estu Kultur Etxea Fundazioarekin**, kultur programazioan euskarazko eskaintza orekatua helburu.
- Hedabideei dagokienean, udalerrri mailan euskarazko prentsa idatziaren faltaz, **Deiadar aldizkaria sortu zen 1990ean** udalaren ardurapean. Zortzi urtez jardun ondoren, Eutsi izena hartu zuen 1999an eta elkarte baten menpe aritu zen beste urte bat, kazetari faltagatik funtzionatzeari utzi zion arte.
- Publizitateari dagokionean, **1997an argitaratu genuen Merkataritza kanpainako berripaperaren 1. alea**, hitzarmenkodeen “publizitatea” eginez, esparru honetan euskara erabiltzera motibatu nahian. Ordutik ona, urtero atera izan da bat gutxienez eta urte batzuetan bi ale.
- **2002 urtean Bagabiz aldizkaria enpresa gisa sortzeko asmoaren berri izan eta Euskara Arloak laguntzeko konpromisoa hartu zuen.** Gaur egun indarrean dago aldizkaria eta konpromisoa.

### **2003-2008 eperako Plan Estrategikoaren magalean emandako pausu nagusiak:**

- **Liburugintza esparruan hainbat eragilerekin** aritu izan da Euskara Arloa 2003tik ona.
- **2003ko uztailaren 23an Busturialdeko Irrati Telebista S.L.-ri esleitu zitzaion** udal albisteen zabalkundea egiteko kontratua, euskararen erabilpenerako irizpide zehatzak finkatuz. Gaur egun 11 telebistako kide dugu.
- **2003tik aurrera, urtero argitaratzen izan den berripaperari “Geure berbie euskeraz” izena jarri eta urteko bi ale** argitaratzeko erabakia hartu zen. Berripaperean hitzarmengintza hiru atalak lantzen dira gaur egun (merkataritza, enpresak, elkarteak).
- **“Geure berbie euskeraz” hitzarmengintza egitasmoa elkarteen esparrura hedatu zen 2004tik aurrera.**
- **2007ko abenduan Busturialdeko Hitza egunkariari diru laguntza eskaintzeko hitzarmena** sinatu zuen Udalak.
- **Corpusaren inguruan, udalerriko toponimia lanari eutsi zitzaion 2003an** eta 2007an “toponimia mapa” argitaratu zen.
- **Kulturgintza lantzeari begira, Kultur Etxearekin elkarlanari eutsi zaio** eta programaziorako irizpideak finkatu eta jarraipena egin.

## **2008-2012 eperako Plan Estrategikoa oinarri izandako ebatzi eta urrats nagusiak**

- **Toponimia lana borobildu eta argitalpena prestatzeko**, Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu zen 2008an.
- **Euskara arloko Web gunea moldatu eta martxan jarri zen 2010ean.**
- **Diru laguntzearako udal ordenantza orokorra moldatu du Udalak 2012an eta Euskara Zerbitzuak bere ekarpenak egin ditu** irizpideak eta arauak txertatzeko. Esan behar da onartuak izan direla proposatutako guztiak. Administrazioaren esparruan honen aipamena egin dugun arren, hemen gogoeta bat egitea komenigarri deritzagu.
- **Toponimia datu-basea digitalizatu eta web gunean jartzear daukagu** 2012ko azarorako.
- **HITZA-rekin hurrengo lau urteetarako hitzarmena sinatu da (2012-2015)**. Harpidetza sustatzeko kanpaina bereziak burutuko dira urtero (2012koa Lurgorri inguruan burutu da).
- **Udalak BiskayTIK erakundearekin hitzarmena sinatu du**. Alkarbideko D ereduko lan-mahaiaren kezka bultzatuta, elkarlanean ari gara Aldundiarekin eta BiskayTIK erakundearekin, udalei eskainiko zaizkien hainbat abantaila informatiko praktikara ekartzeko orduan udal langileei eta herritarrei (on-line tramitazioak) euskarazko aukera erraztu asmoz. Udala eta herritarren arteko harremanetan teknologia berrien erabilera areagotuko duen oinarria jarri da martxan; guri dagokigu oinarri hori euskara ulergarrian eta erosoan erabiltzeko moduan prestatzea.

### **II.3.1.- Kulturgintza - Balorazioa**



## ADIERAZLEAK

### Zenbait eragilerekin kaleratutako argitalpenak (1987-2012)

<b>Berritzegunearekin:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure Ohiturak I, Neguaren bihotza, 1987 (Berritzegunea)</li> <li>• Gure Ohiturak II, 1988 ( “ ” )</li> <li>• Busturialdeko jolasak, 2003 ( Berritzegunea)</li> </ul>	3
<b>Irakaskuntza zentroekin:</b> Idazlan koadernoak (LHkoa eta DBHkoa) urtero. Guztira 14 argitalpen (2002-2012)	14+8
<b>Saure Editorialarekin</b> elkarlanean argitaratutakoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tolerantzia (baliabideak eta arronkak) 2002</li> <li>• Aritz pilotaria (Nayarit-eko altxorra) (komikia) 2003</li> <li>• Knosossos-eko Ondarea (komikia) 2004</li> <li>• Harri pintatzaileak (komikia) 2005</li> <li>• Marraztu PIRATAREKIN (komikia) 2006</li> </ul>	5
<b>Labayru Institutuarekin</b> elkarlanean argitaratutakoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaldunak Madrilen (eleberria) (Jose Basterretxea “Oskillaso”)</li> <li>• Kurloiak (eleberria) (Jose Basterretxea “Oskillaso”)</li> </ul>	2
<b>BBK Fundazioarekin</b> elkarlanean argitaratutakoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urdaibai artean (literatura gida)</li> <li>• Urdaibai artean (paisaiaren alkimia)</li> </ul>	2
<b>Gernikazarra Historia Taldearekin</b> elkarlanean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gernika-Lumo, kalerik-kale, 2003 (toponimia urbana)</li> <li>• Erretereria auzoko historia liburua</li> <li>• Unitate didaktikoak (hiribilduaren historia) 2008-2012</li> </ul>	2+6

<b>Elai Alai dantza taldearekin:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gernika-Lumoko urtaroak eta Elai-Alai dantzari taldea</li> </ul>	1
--	---

### Euskara zerbitzuak taxutu eta argitaratutakoak:

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Agenda interkulturala (2006)</li> <li>• Udaleko tramiteen esku-liburua (gida) (2006)</li> <li>• Etorkinentzat zerbitzu-gida (2007)</li> <li>• Etxebizitzaren erabilera eta mantentze estilo-liburua (Alkarbide bitarteko) - 2005</li> <li>• Merkataritzako unidade didaktikoa (Artez enpresa bitarteko) - 2006</li> <li>• Toponimia liburua (Euskaltzaindiarekin) 2011</li> </ul>	4+1
--	-----

Dakusagunez, arlo desberdinetako materiala lantzen ahalegindu gara (literatura, etnografia, corpusari buruzkoak, gaztetxo eta gazteei begirakoak, heldueei erabilera erraztekoak,...), gizarte esparru eta adin desberdinetarako aproposak.

Lan oparoagoa urte aberatsak izan direnetan eta ezer ez zegoelako ere aitzakia. 2006tik honako ibilbidea apalagoa izan da argitalpenei dagokienean, baina emankorra izandako uztagatik (unitate didaktikoak, toponimia, idazlan koadernoak,...).

### Hitzaingintza kanpainarako moldatutako hiztegiak (hitzaingintza)

<b>Merkataritza eta enpresa ataletarako sortutako hiztegiak (Artez enpresa):</b> Hitzaingintza kanpainaren magalean Abere, aholkularitza, altzariak, animaliak, argazkigintza, aroztegiak, arraindegiak, arropak, atea, aseguruak, autoeskolak, banatzaileak, belar-dendak, bidegoklubak, kirolak, liburuak, lorak, bitxiak, brikolajea, denetarikoa-orokorra, drogeria, egunkariak, ahiza, alektrizitatea, frutak, gozotegiak, harategiak, higiezinak, ile-apindegiak, informatika, irudia, janariak, jatetxeak, mertzeriak, musika, ortopedia, sukaldeak, supermerkatuak, tabernak, txokoa, ume-dendak, zapata-dendak)	44
Hitzaingintza kanpainaren barruan <b>kirol mundurako prestatutako hiztegiak (Artez enpresa)</b>	8

### Toponimia ikerlanaren fase desberdinei buruzko adierazleak

<b>2002-2003an</b> Deustuko Unibersitateko <b>Deiker Institutuak jasotako toponimoak</b> (aldaerak barru)	701
<b>2004an Busturialdean euskaraz Bizi elkartearekin hitzarmena.</b> 8 inkestatzailek Deiker Institutuaren ardurapean jasotakoak eta zerrendan geratu ziren toponimoak (aldaerak barru): aldaketak 29, zuzenketak 34, kendu 1, berriak 30	795
<b>2006an Euskaltzaindiak egindako garbiketaren ondorioz</b> ontzat emandako toponimoak (aldaerak zenbatu barik) eta kokapena finkatuz	548
<b>2007an Euskara Zerbitzuak egindako gainbegiratzearen ondorioz</b> geratu zen azken zerrenda (Toponimia Mapan jaso eta Toponimia libururako oinarri): aldaketak 10, zuzenketak 26, kendu 9, berriak jaso 8.	547
<b>2008an Euskaltzaindiarekin hitzarmena</b> sinatu zen, Toponimia Liburua eratu eta argitaratzeko (toponimo bakoitzeko fitxa bat, 200 argazkirekin, ahozko aldaerak eta leku bereko izen desberdinak ere jasota). Bildu den toponimo kopurua: 700 bat. Azkenean, 2011n argitaratu zen, aurrekontu arazoak bitarteko.	700

## Udal liburutegiaren euskarazko fondoa (bilakaerea 2004-2011)

	2004 urtea		2008 urtea		2011 urtea	
	Guztira	Eusk + eleberaz	Guztira	Eusk + eleberaz	Guztira	Eusk+eleberaz
Bildumaren ale kopurua	20.513	5.228 %25,48	30.172	7.906 %26,20	35.585	9.194 %25,83
Inprimaturiko dokumentuen ale kopurua	20.217	5.178 %25,62	28.119	7.645 %27,18	31.478	8.572 %27,23
DVD euskarrikoak	246	43 %17,48	1.834	196 %10,68	3.466	389 11,22
CD euskarrikoak	44	5 %11,36	169	36 %21,30	575	262 %45,56
Eskuraketak	-----	-----	-----	-----	2.058	553 %26,87
Mailegatutako liburuak			-----		10.473	2.534 %24,19
Beste maileguak (DVD, CD,...)					10.886	1.849 %16,98

### II.3.1.1.- Pozteko ondorioak (kulturgintza):

**2.- Aurrekontuari dagokionean, Kulturgintza esparrureko ez da kopuru handirik aurreikusi behar izan (8. orrialdea),** kulturgintzako eragileen (Kultur Etxea Fundazioa eta elkarteak) hizkuntza irizpideekiko funtzionamendua eta kudeaketarako laguntza eskaintzea izan delako Euskara Zerbitzuaren eginkizun nagusia. Burututako ekintzak Kultura Arloko aurrekontuaren bizkarrekoak izan dira gehien bat, corpusarekin zerikusia duten ekintzen kasua salbu.

**4.- Hitzarmengintza kanpainan daude kultur elkarte gehienak (40tik 29)** eta euren artean garrantzitsuenak. Atal honetan, gure alde daukagu kultur elkarteek ez izatea goragoko erakundeekiko menpekotasunik, kirol elkarteek dituzten Federazioen antzeko oztoporik eza.

**5.- Elkarteetako kideen euskararen ezagutzak (2008an %85; 2012an %93) gora egin du nabarmen;** horrek adierazten digu kultur elkarteetan (gazte elkarteak barru) biltzen den biztanleria euskalduna dela ia guztia: gazteak hein handi batean eta inplikazioa duten helduak.

6.- Ondorioz, kultur elkarteetako **erabilera datua ere oso altua da (erabilera orokorra %87,69)**, kaleko erabilerarekin alderatuta (%52). Barruko erabilera 2012an %66 eta kanpokoa %91. Esparru edo giza-gune baten dagoen euskaldunen dentsitatearen eragina dogu honakoa, zenbat eta euskaldun dentsita handiago taldean, hainbat eta aukera gehiago euskaraz aritzeko.

**6.- Jaietako ekitaldiak/ikuskizunak euskarazkoak dira ia guztiak (2007ko %91,66)**, maila informalean eta kaleko erabilera orokorrean eragiteko tresna preziatua.

**7.- Euskarazko ikuskizunetako ikusle kopuruaren portzentajea asko igo da** (2004an %44; 2007an %30 eta 2011n %57). Bahiz eta Kultur Etxeko programazioan euskaraz eskaintzen diren ikuskizunen portzentajea mantendu (%50-%47).

**8.- Esparru honetan gizarte eragileekin izandako elkarlana eredugarri izan da**, gizarte esparru desberdinetako eragileak (irakaskuntza, fundazioak, elkarteak, editorialak, euskaltzaindia).

**9.- Argitalpenetan landutako gaiak baliagarri ditugu beste esparru batzuetan ekiteko** (irakaskuntza, alfabetatzea, familia, aisia eta gaztedia, kulturgintza,...)

**10.- Aurreko urteetan corpusari eskainitako arretari jarraiki, azken urte hauetan errematea eman zaio toponimia ikerlanari. Toponimia liburua 2011n argitaratu zen.** Garrantzi handia eman zaion esparrua dugu corpusarena, hortik bideratu izan diren egitasmoak lehentasuna izan dutelako ( <http://www.gernika-lumo-euskaraz.com/euskara/argitalpenak> ).

**11.- Corpusari lotuta, ahozkoa zen egiteke geneukana; 2008-2012 epean bete da hutsune hori “Gernika-Lumoko Ahotsak” egitasmoarekin.** Badihardugu elkarte herriz herri aspalditik burutzen ari den lanari eutsi eta hitzarmena sinatu zuen Gernika-Lumoko Udalak lau urterako. Egitasmo horren emaitzen aurkezpena izango da 2012ko azaroaren 30ean (50 lekukoren bideo grabaketa, transkripzioak, gaika sailkatzea, digitalizazioa,...).

**12.- Udal liburutegian CD euskarrietako euskaraz+elebietako fondoa nabarmen igo da** (2004an %17,48 -5 ale-; 2011n %45,56 -262 ale-) eta gaur egun ikus-entzunezkoen eragina kontuan izanik, garrantzitsua egindako ahalegina.

**13.- Kultura Arloko bilgune herrikoia badago, Kultura Batzordea,** eta horrek erraztu egingo digu Plan Estrategikoa eta honi lotutakoak kultur eragileen eztabaidagunera eramatea.

### **II.3.1.2.- Kezkatzeko ondorioak (kulturgintza):**

- 1.- Kultura arloko goi erakundeekiko ez da ahal den beste presiorik egiten** eta aukera horri eustea inportantea deritzogu, kultur elkarteek eredu dituztelako goi erakundeen hizkuntz irizpideak, jokabideak eta aginpideak (diru laguntzetarako,...).
- 2.- Udalerri mailan Kultura Plan baten falta sumatzen da**, hizkuntza irizpideak bere baitan jasoko lituzkeena, programaziorako, kultur ekoizpena eta eskaintzarako eta erakundearen funtzionamendurako tresnarik eraginkorra.
- 3.- Kultur Etxea Fundazioaren euskarazko ikuskizunen portzentajea (%50)**, udalerriko egoera soziolinguistikoaren (euskaldunak %69,3 eta ia euskaldunak %17,3) azpitik dago eta kaleko euskararen erabileraren (%51,4) parean. Agian, errealitatearen ondorioa dugu, kultura merkatuak euskaraz ekoizten duenaren heinekoa.
- 4.- Udal liburutegian euskarazko fondoa asko igo den arren (2004an 5.228 eta 2011n 9.194) fondo orokorrarekiko portzentajeak ez du gora egin** (%25 orduan eta hortxe mantentzen da 2011n).
- 5.- Kultura Arloko bilgune teknikorik ez dago.** Horrek, zailago egiten digu Kultur Etxeko zerbitzu desberdinen jarduna Euskararen Plan Estrategikoarekiko uztartzea (Musika Eskola, liburutegia, programazio lana, Gaztelekua, Informazio Bulegoa, Astra-?-). Esan behar, aipatu Batzorde tekniko hori (zerbitzu desberdinetako teknikarien bilgunea) Kultur Etxeko estatutuetan aintzat hartuta dagoela.
- 6.- Liburugintzari eutsi eta hainbat argitalpen egokitu ostean, material horrekin helduen munduan zabalkundea egin eta etekina ateratzea zailagoa gertatzen da.** Kasu honetan, bide desberdinak jorratu izan ditugu: eskolak eta institutuak, Berbalagunkideak, Euskarazoka (hileroko lehenengo zapatuetako azoka berezietan salgai prezio sinbolikoan edo opari).
- 7.- Hutsunea dago kulturgintzatik egiten den tailer berezien eskaintzan** (irakurketa, literatura, komiki,... tailerrak).
- 8.- Corpusaren inguruan ekoiztutako materialaren zabalkunderako plan orokor bat behar da** (bideak hobeto jorratu); irakaskuntzarako (eskualdeko hizkuntza ondarea, Idazlan Koadernoak), norbanakoentzako (etxejabeen elkarteetako agiriak, etxeko agiriak, Eraikinen mantenurako aholkuak, toponimia liburua), hitzarmen-kideentzako (hiztegiak) eta edozeinentzako (esparru desberdinetako gidak) argitalpenak barru.
- 9.- Corpusetik abiatu eta ahozko akatsen datu-bilketa eginda, zuzenketarako moduak asmatu beharra dago.** Kasu honetan, neurri batean alfabetatzearekin egiten dugu topo, baina helburua kaleko erabilera zuzenerako eragitea litzateke. Hor daukagu eredu “Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak” liburua, Bergarako Euskara Zerbitzuak moldatua.

## II.3.2.- Hedabideak - Balorazioa

### ADIERAZLEAK

Oiz Mendi Telebista	2003 urtea	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2012 urtea
Hedabidearen aurrekontuaren bilakaera	24.000	---	185.000	244.000	258.000	418.000	358.200
Langile kopuruaren bilakaera	5 (irratia barru)	5 (irratia barru)	5 (irratia barru)	5 (irratia barru)	6 (irratia barru)	6 (irratia barru)	2 irratian 6 telebistan
Ikusleak (neurketa bakarra eskualde bietan: Busturialdea eta Lea-Artibai – Ondarru ez-)	---	---	---	---	8.200 (etxe/familia)	---	14.100 (etxe-familia) Eskualde bietan eta kanpo? + Euskaltel

Iturria: Oiz-mendi

Busturialdeko Hitza egunkaria	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea	2011 urtea	2012 urtea
Harpidedun guztiak eskualdean	2789 Doanekoa	2101 Ordaintzekoa	1813 Ordaintzekoa	2410 Ordaintzekoa (*)	-----	-----	1.835 Neurriratu
Harpidedunak guztira: GernikaLumon / Bermeon							632 / 955
Harpidedun ordaintzaileak: Gernika-Lumon / Bermeon	---	---	---	525 / 503	-----	-----	472 / 345
Gastuen aurrekontua	---	463.380	363.524	399.746			621.445
Sarrereren aurrekontua		256.741	315.913	334.416			630.082
Publizitateko diru sarrerak		86.679	118.513	---			159.690
Irakurle kopurua eskualdean (CIES Inst. neurketa)	---	---	11.000 hitza	---	10.000 hitza 10.000 Correo	28.000 Bizkaia osoan	

Iturria: Busturialdeko Hitza / CIES erakundea

(\*) Kontuan hartu behar da hainbat Udalek harpidetzak erosi zituztela, herritarren artean banatzeko.

Bagabiz aldizkaria, hilabetekaria	2002 urtea	2003 urtea	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea
Tirada Gernika-Lumon (banaketa buzoietan)	5.000	5.000	5.000	5.000	5.000	5.000
Publizitatea (iragarkiak ateratzen dituztenak)	18	34	44	52	60	62

Iturria: Bagabiz aldizkaria

### **II.3.2.1.- Pozteko ondorioak (hedabideak):**

**1.- Hedabideen esparruan Plan Estrategikoaren betetze-maila ia %100ekoa izan da,** nahiz eta komunean burutzeko egitasmo geneukan ekintzaren bat ez den bideragarri ikusi (publizitatearen gaia aztertzeko foro bat sortu udal eta eskualde mailako hedabideen artean).

**2.- Esparru honetan 2008tik hona erabilitako aurrekontua mantentzeko ahalegin berezia egin da,** lehenetasuneko eta estrategikotzat jo delako; 2003an 12.621 €ko aurrekontua (guztiaren %6,87), 2008an 107.000 € (guztiaren %16,34) eta 2012an 95.400 € (guztiraren %15,78). Honekin lotuta dago Hitza eta Oiz-mendiren aurrekontuen bilakaeraren kontua: Hitzak izan dituen arazoak bitarteko, eskualde bietako Hitza egunkeriek bat egin dute (aurrekontu murrizketa) eta Oiz-mendi telebistaren kasuan ere murrizketa nabarmena izan da 2008koarekin alderatuz.

**3.- Hedabideen esparruan eskaintza zabala euskaraz izatea lortu egin da neurri handi batean** (telebista, egunkaria, hilabetekaria). 1990-1999 urte bitartean Udalaren magalean euskarazko Deiar/Eutsi astekaria abian egon zenetik, asko garatu da esparru hau gizarte eragileek ekimenari (Gernika irratia-Oiz-mendi telebista, Busturialdeko Hedabideak S.L.-rekin lotutako elkarteak, Bagabiz aldizkaria) eta herri erakundeek diru laguntzari esker.

**4.- Abian dauden egitasmoak enpresa ekimenak dira.** Horixe azpimarratzen genuen 2008an ere eta, horrek, nolabaiteko balio erantsia ematen die proiektuei, ekonomikoki bideragarriak izan daitezcan ahaleginari eusten zaiolako; errealitate soziolinguistikoa artifizialari uko eginda, herriaren benetako atxikimenduaren erabera neurritatzea dakar jokabide horrek.

**5.- Etxe guztietan dago euskarazko hedabideekin lotura izan eta hurbileko albisteak euskaraz dastatzeko aukera.** Bertoko albisteak bitarteko, modu erakargarrian euskararen erabilera areagotzeko baldintzak sendotu egin dira.

**6.- Udalerriko hedabideen potentzialitatea eta eragina handia da.** 2007 eta 2009ko neurketen arabera, eskualdean gehien irakurtzen den egunkaria Hitza da (10.000 irakurle), Correo egunkariaren parekoa. Bestalde, Gernika-Lumoko harpidedunen fidelitasuna ere handia da beste batzuekin alderatuta (konparatu harpidedun guztien kopurua eta ordaintzen dutenena). Oiz-mendi Telbistari dagokionez, ikusle kopuruak gora egin du, Hamaika Telebista erakundearen sartu izanak ere eragina izanik; 42.300 ikusle (14.100 familia/etxe x 3 pertsona etxeko) ditu Oiz-mendi telebistak 2012ko neurketen arabera (eskualde bietan 25.000 ikusle + Euskaltelen bitartez 17.300 ikusle). Eskualde bietako ikusle potentzialak 60.000 inguru direla kontuan hartuta, biztanleriaren %41,66ak jotzen du toki telebista horretara (ez dakigu horietatik Gernika-Lumokoak zenbat diren, baina ziur eragina izango duena Oiz-mendi telebista egitasmoa Gernika-Lumon sortua eta bertan kokatua izateak).

### **II.3.2.2.- Kezkatzeko ondorioak (hedabideak):**

- 1.- Ez da oraindik euskarazko hedabideen arteko elkarlanik planteatu**, nahiz eta euren arteko lehiarik izan ez (publizitatearen esparruan, agian?). Interesgarria izango litzateke horretarako bilgune bat sortzea.
- 2.- Udalerriko hedabideek erabiltzen dituzten hizkuntza ereduak ez dira berdinak** eta hiztunekiko komenigarria litzateke horretan nolabait bateratuta jokatzea, hizkuntza eredu antzekoak eskainiz hedabide desberdinetan eta hiztunen begietarako horrenbeste nahaste ez sortzea.
- 3.- Euskarazko hedabideak administrazioaren diru laguntzen pentsura daude gaur egun**, enpresa egitura duten arren. Horrek sor dezakeen dinamika kaltegarria da bihar-etzirako, kalitate eta hobekuntza prozesuaren beharrezanik ez eta bezeroen gogoak kontuan hartu barik jokatzeko ekar dezakeelako.
- 4.- Hitza egunkariaren kasuan, aztertzea da harpidedun kopuruak behera egitea**, krisiaren eraginez akaso. Harpidetza kanpaina bereziak egiten dira urtero horri aurre egiteko (Gernika-Lumon Lurgorri inguruan burutu izan da 2012ko maiatzetik irailera eta oraintxe jasoko dira emaitzak).
- 5.- Esparru honetan ekiteko irizpideak finkatzearen, diagnostiko sakona egin beharra dago.** Hedabideen arrakasta “erreal” neurtu eta euskal hiztunen hedabideekiko gogoak ezagutzeko, hedabideen bideragarritasuna/autofinantzazioa ziurtatzeko bideak jorratu behar dira. Ikerketa horren barru legoke hedabideek hizkuntza ohituretan duten eragina areagotzeko moduak lantzea.



## II.3.3.- Teknologia berriak – Balorazioa:

### Gernikaldeko 12 urteko ikasleei egindako neurketa (iturria: Gernika-Lumoko Berritzegunea – 2010)

(ULIBARRI programako GELARGAZKIA / gehienezko puntuaketa 5)

Gaztelaniaz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun argiz		<b>ZENBAKIAK</b>	1: Beti erdaraz 2: Erdaraz gehiago 3: Bietara berdin 4: Euskaraz gehiago 5: Beti euskaraz
Gaztelaniaz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun ahulez			
Euskaraz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun ahulez			
Euskaraz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun argiz			

### Batazbestekoa:

		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
Berba egin	Egin	3.28	3.72		3.71	3.72	3.15	4.19	4.38	4.09	4.39	3.55	2.49			3.70	4.04
	jaso	3.28	3.72	2.52	3.67	3.60	2.95	4.20	4.50	4.07	4.53	3.55	2.49	3.03	2.49	3.30	4.04
Irakurri	Egin												2.49				
	Jaso												2.49		2.68		4.04
Idatzi	Egin												2.49				
	Jaso												2.49				

#### kodeak

1. Familia
  - 1.1 Gurasoekin
  - 1.2 Anai-Arrebeekin
  - 1.3 Gurasoak beraien artean
2. Auzoa
  - 2.1 Kaleko lagunekin
  - 2.2 Auzoko ezagunekin
  - 2.3 Auzoko ezezagunekin
3. Eskola
  - 3.1 Gelako lagunekin
  - 3.2 Irakasleekin gelan
  - 3.3 Lagunekin jolastorduan
  - 3.4 Irakasleekin gelatik kanpo

4. Komunikazioa
  - 4.1 Telefonoz
  - 4.2 Interneten
  - 4.3 Irratia-musika entzun
  - 4.4 TB, Bideoa, Zinea, Prentsa
5. Kirola
  - 5.1 Kirolean
6. Eliza
  - 6.1 Elizan

#### Parte hartu duten ikastetxeak:

- Publikoak LH: 2 (lagina: LH-ko 6. mailako talde bana)
- Publikoak BH: 2 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)
- Itunpekoak: 3 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)

### Eremu erdaldunak:

1. Internet: 2.49
2. TB, Bideoa, Zinea, prentsa: 2.49
3. Gurasoak beraien artean: 2.52 (%50,4). Gernikaldeko betiko arazoa: umeei euskaraz eta nagusien artean, erdaraz.
4. Auzoko ezezagunekin: 2.95 (jaso). 3.15 (egin). Zergatik ezezagunei erdaraz zuzentzeko joera?

### Eremu euskaldunenak:

8. Eskola: 4 eta 5 tartean, hau da, eremu euskaldunena
9. Eliza: 4tik gora
10. Anai-arrebekin: 3,72 (%74). Guraso bat erdalduna den kasuetan ere, euren artean euskaraz aritzen direla ematen du.
11. Kaleko lagunekin 3.71 /3.67, baina gelakoekin: 4.9 /4.20: kaleko eta gelakoak lagun berberak izanik, eragina al du eskolan egoteak?
12. Auzoko ezagunekin: 3.72 (egin) 3.60 (jaso). Aldea dago “egin” eta “jaso”-ren artean, handirik ez baina.
13. Gurasoekin: 3.28 ( egin eta jaso -%65,6-). Anai-arrebekin egiten dutenarekin alderatuta (3,72) eta guraso erdaldunen kopurua kontuan hartuta, ondorioa: guraso bat erdalduna den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du anai-arrebekin.  
Adin tarte honetako gurasoen datuak (BRANKA):
  - Guraso biak euskaldunak: % 57
  - Guraso biak erdaldunak: % 16
  - Guraso bat euskalduna: % 27
14. Kirolean (eskolan): 3.70 /3. 30 eman du batzaz-bestekoa. Kasu honetan, komenigarria litzateke bereiztea eskolan egiten dena, nahiz eta ikastordutik kanpo izan. Kirol elkarte batzuk aztertzeke aukera emango luke, Gernikaldean behintzat.

<b>ADIERAZLEAK</b> <b>(www.gernika-lumo-euskaraz.net)</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2011 ek</b> <b>2012 ek</b> <b>Urte osoa</b>	<b>2012 uzt</b> <b>2012 az.</b> <b>Sei hilabete</b>
Web orrirako digitalizatuta argitalpenak/txostenak euskaraz	14	3	3	3	3	3
Web orrian bisitak GUZTIRA	---	---	---	---	9.371	4.853 gora
Web orrian bisitak: argitalpenen atalera	---	---	---	---	536	257 berdintsu
Web orrian bisitak: Euskara Batz/Eusk Zerb. atalera	---	---	---	---	528	282 gora
Web orrian bisitak: jorrotokiak	---	---	---	---	218	130 gora
Web orrian bisitak: albisteen atalera	---	---	---	---	206	137 gora
Web orrian bisitak: baliabideen atalera	---	---	---	---	176	127 gora nabarmen
Web orrian bisitak: lan-mundua/elkarteak” atalera	---	---	---	---	171	121 gora nabarmen

<b>ADIERAZLEAK</b> <b>Udalaren webgunea (www.gernika-lumo.net)</b>	<b>EPEA</b> <b>2012ko uzt/azaroa</b>
Webgunerako bisitak guztira	39.629
Webgunerako bisitak euskaraz	21.808 / %54,78
Webgunerako bisitak gaztelaniaz	17.821 / %44,76
Bisitaturiko orrialdeak guztira	195.192
Bisitaturiko orrialdeak euskaraz	107.133 / %54,88
Bisitaturiko orrialdeak gaztelaniaz	88.059

### **II.2.2.1.- Pozteko ondorioak (teknologia berriak):**

**1.- Posible izan da Euskara arloko webgune berezia martxan jartzea.** Erronka zen guretzat eta, azkenean, lortu da.

**2.- “gernika-lumo-euskaraz.com” webgunean bisitak gora doaz,** aurreko urteko datuak eta azken sei hilabeteetakoak alderatuta. Gora egin dute atal guztietako bisitek, baina nabarmen hurrengoek: baliabideak eta lan mundua/elkarteak ataleko bisitak

**3.- Udalaren web orri berrian sartzeko euskarazko bertsioa hobesten da eta euskaraz saltseatzen da gehien** (bisita guztien %55a euskaraz garatzen da eta bisitatu diren orrialdeetatik euskarazkoak dira %55a). Kontuan izanik bisitarien artean Euskalerritik kanpokoak daudela hein batean (?), euskarazko erabilera horren portzentajea areagotu egingo litzateke bertokoen bisitak bakarrik neurtuz gero (zenbat?). Neurtu den uztaitetik azarorako epean, sarrera guztiak 39.629 izan dira; euskaraz garatu direnak 21.808; bisitaturiko orrialde guztiak 195.192 eta horrietatik euskarazkoak 107.133.

**4.- Ikasleen artean gunerik erdaldunenak (5etik 2,49 puntu): Internet,** telebista, bideoa, zinea eta prentsa. Eskoletan 2010ean egindako “gelargazkia” datu-bilketan islatzen diren datuak dira.

**5.- Esparru honek izaera transbertsala dauka eta beste esparru batzuetan ekiteko bidea eman digu:**

- Elkarte, enpresa eta merkataritza arloko hitzarmen-kideei, euren doakien arloko sareko tresnen zabalkundea egin da eta horretan jarraitzen dugu (hiztegi elektronikoak, euskarazko aplikazioak, agiriak.net -idatzi ereduak eskuragarri-, ikasare.net -euskara ikasteko on line sistema-).
- Hitzarmengintza kanpaina bitarteko, web orriak eratzeko merkatariei, enpresei eta elkartei baliabide eskaintza (teknikoak KZ guneak, itzulpenak geuk).

### **II.2.2.2- Kezkatzeko ondorioak (teknologia berriak)**

**1.- Aurreko urteetan esan bezala, zer esan gutxi daukagu udal mailatik.** Goragoko erakundeen (multinazionalak,...) baliabide eta jokabideen menpe izango gara ia beti esparru honetan ekoizten dena dela eta.

**2.- Ez dugu lortu esparru honetan adierazlerik eratzea** egindakoaren arrakasta neurtzeko, oso zaila dakusagu adierazle fidagarri bat lortzea, arloko merkatariekin estu-estu elkarlanari eusten ez badiogu behintzat. Beraz, ekintzetan % 100eko betetze-maila izan arren, ez du esan nahi esparru honetan arrakasta osoa lortu dugunik, egin ahal izan duguna egin dugula baino.

**4.- Elkarte, erakunde, enpresa eta merkataritza arloan teknologia berriak zein neurritan eta zelakoak erabiltzen diren jakiteko diagnostiko zehatza egin beharra dago udalerrian..** Hortik abiatu beharko litzateke hurrengo Plan Estrategikorako esparru hau dela-eta proposamenak egiteko.

**5.- Gure kezka, goragoko erakundeen kezka ere bada, iraultza teknologikoak hizkuntza erabileran gero eta zer esan gehiago izango duelako.** Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde teknologikoa (HPSren koordinaziopean) egoeraren diagnostikoa egiten aritu zen duela urte batzuk eta hurrengo urteotan euskarak sarean izan behar duen presentziarako ekintzak, epeak eta parte-hartzaileak zehaztu zituen; guretzat orientabidea. Lorpenak hor daude (“.eu”, aplikazioak euskaraz,...), baina bidea luzea izanda ere, etengabe ateratzen dira gauza berriak. Soluziorik onena: euskarari lehentasuna ematen dioten jatorrizko baliabide teknologiko berriak sortzea. Ametsa?

**6.- Eragile batzuekin urte batzuetan izandako elkarlanari ez diogu eutsi behar beste.** Kasurako, KZ gunearekin, bertako funtzionamendua eta eskaintzarekin lotuta euskararen tratamendurako irizpideak finkatzearen. Ikastaro berezi batzuk ere eratu ziren elkarlanean (udalaren web orriari buruzkoak, euskarazi buruz sarean dagoenari buruzkoak, hitzarmenak ditugun enpresa eta elkarten web orriak doan eratzeko zerbitzua,...)

**7.- Interneteko sare sozialak (facebook) Euskara Zerbitzuak ez ditu erabiltzen** eta Udalak erabiltzen duen facebook-ean ez daukagu hizkuntza irizpideak kontrolatzeko aukerarik. Badaude beste zerbitzu batzuk arlo horretan ekiteko perfila moldatu dutenak (Gazteen Informaziorako bulegoa) eta geure “laguntza” eskaini beharko genieke.